

Kultura

Anestesia talde zarauztarrak kontzertua eskainiko du, zapatuan, Plateruenean > 11



'anboto.org' webgunearen aplikazioa mugikorretara jaisteko prest dago

ANBOTOk joera berrietara moldatu, eta aplikazioen munduan sartzeko apustua egin du. Honekin, irakurleek erraztasunak izango dituzte albisteak aurkitzeko, telefono gidan sartzeko edo beraien aportazioak ANBOTOran bidaltzeko. ANBOTOn aplikazio berria doakoa da, eta Android eta IOS sistema operatiiboetan jaitasi daiteke. > 9

"Ardosaltsanen pintxo originalak sortzen saiatuko gara" > 7

Javi Mugica I
Ardosaltsaneko sukaldaria



Ongi etorri Otxandiora

Kanpotik Otxandiora bizitzen datorrenari bertaratzen laguntzeko Harrera Taldea sortu dute. Bizilagun berriak gura badu, bere beharrian eta testuingurura moldatutako laguntza eskainiko diote, aurrerantzean. > 4

Lehior Elorriaga

hitz #gomendioak

artekalea 14, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

HEKi
HERRI KIROL KLUBA

Tel.: 656 782 552
heki.iurreta@gmail.com

Umeentzako erakustaldiak eta antolaketak

Elorrio > 2

Pulla-Azkarreta industrialdea, eztabaidaren erdian

Atxondo > 3

Anbotopekoek Arrazolako eraikina utziko dute

Abadiño > 5

Igerileku-ontziaren sakontasuna 1,40 metrora murriztuko dute

Durangaldea > 8

ANBOTOk komunikazio ez sexista lantzeko kodea sinatu du

> Herririk herri

Pulla-Azkarretako industrialdea, berriz polemikan sartuta

Epaileak dio dokumentuak falta zaizkiola planari, eta, behin-behinean, ez atzera ez aurrera dago

ELORRIO Markel Onaindia Pulla-Azkarretako industrialdearen planari errekurtsioa ipini zion Elorrioko Auzo Koordinakundeak, eta orain, behin-behinean, ez atzera ez aurrera dago. Izan ere, epaileak esan du planari dokumentu batzuk falta zaizkiola. Egoera nahasi horretan, polemika politikoa azalera-tu da berriro, eta industrialdearen geroa ez dago hain argi.

EH Bilduk, gobernuko alderdiak, gogor kritikatu du EAJk aurreko legealdian eginiko gestioa, eta planagaz “hanka-sartze larriak” egin zituela salatu du. Bestalde, koalizioak azaldu du Pulla-Azkarretako auzia berriro mahai gainera ateratzeko prest dagoela, hauteskunde pro-

graman aukera hori zabaltzen zutela gogoratuz. “Testuinguru ekonomikoa eta gaur egungo hirigintza garapena ez dira iraganekoak”.

Pulla-Azkarretako lursaila, Eusko Jaurlaritzaren menpeko Sprilur erakundeak erosi zuen industrialdea sortzeko. Bada, EH Bilduren arabera, plana trabatu den honetan, Sprilurreko ordezkariak “mehatzuka” agertu dira udalean. Baina, hala ere, “enpresen aldetik gaur egun Elorriora etortzeko inolako interesik ez dagoela” aitortu ei zuten, EH Bilduren esanetan.

“Arduragabekeriak”

Joseba Mujika jeltzalearen iritziz, EH Bildu “arduragabeke-



Pulla-Azkarreta ingurunean industrialdea eraikitzea aurreikusten du Elorrioko Plan Orokorrak.

riaz jokatzekoa” dabil. Bere esanetan, plana Sprilurrek landu zuen, eta EAJk udaleko teknikari eta juristekin zehaztu zuen gero. Gainera, gogoratu du EH Bilduk ere ahalbidetu zuela plana, aldeko boto batez, eta gainerako abstentzioekin. Mujikak esan du udalak 20 eguneko epea

daukela auzia konpontzeko, eta, bere ustez, “horixe da logikoa”. Baina, kezka agertu du “EH Bilduk gai honekiko daukan jarraitasunik”.

14 urteko borroka

Auzo Koordinakundeak 14 urte daramatza industrialdearen

aurkako lanean. Lehenago, Elorrioko Plan Orokorra errekurritu zuten. Industrialdearen plana “baliorik barik” geratu dela azpimarratu dute, eta EAJ-ri presaka ibiltzea egotzi diote. “Gobernua galtzen bazuten, onarpena ez lortzeko beldurra zuten?”, galdetu dute.

Supermerkatuaren etorreragaz “kezkakuta”

Komertzio txikiak arduratzen du EH Bildu

ZORNOTZA J.D.

Eroskik Tantortan egingo duen supermerkatu berriak herriko komertzio txikietan izan dezakeen eraginagaz “kezkakuta” agertu zen EH Bildu, joan zen barikuko udalbatzarrean: “Epe ertain eta luzean ekarri ditza-keen ondorioen gaineko proiektzio-ekin du Gobernuak? Hau da, zenbat denda txiki itxi, eta zenbat enplegu deuseztu daitezke? Horrexek kezkatzen gaitu

benetan”, adierazi zuen Urko Lopez zinegotziak.

Gaindegiairen —Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia— datuen arabera, 2010etik 2014ra ia %10 jaitsi da hamar langile baino gutxiagoko saltokien kopurua Hego Euskal Herrian. Bereziki, merkataritza-gune handien hedapenaren ondorioz.

Andoni Agirrebetia alkatearen esanetan, “zornotzarren

%70 herritik kanpora joaten da erosketa handiak egitera, eta guk nahi duguna da, kanpora joan beharrean, herrian bertan egin ditzatela erosketa horiek”. Gaineratu zuenez, “supermerkatu berrira joatea nahi dugun jende hori, gaur egun ere joaten da Bilbondora, edo beste toki batzuetara”.

HiriEkimenaren ustez, horrelako erabaki garrantzitsuak “ezin ditugu politikariok bakarrik hartu, eta herriari galdetu behar zaio erabaki dezan”. Bide horretan, zornotzarren artean gaia eztabaidatu, eta galdetzeko prozesua hastea eskatu du: “Udalak egiten ez badu, geuk egingo dugu, eta gure botoa herriak erabakitzen duena izango da”.

Udalbatzarrak internet bidez jarraitu ahal izango dira

Alderdi denak ados daude HiriEkimenaren eskaeragaz

ZORNOTZA J.D.

HiriEkimenak aurkeztuta, Bozera-mailen Batzordean eztabaidatutako mozio biren berri eman zuten, joan zen barikuko udalbatzarrean. Alderdi denak ados daude mozio bien edukia-ekin, eta gauzatu egingo dituztela jakinarazi zuten.

Mozio batek udalbatzarrak interneten (youtube.com plataformaren bidez) zuzenean eskaintzeko eskatzen du. Ondoren,

bideo horiek interneten geratu-ko lirake, gura duenak ikusi ditzan. Udalbatzarretara joan ezin direnek han gertatzen denaren berri jasotzeko beste tresna bat eskaintzea da helburua.

Bigarren mozioak, bestalde, haxe eskatzen du: udalbatzarrak jarraitzea bertaratzen diren herritarrei eta euskaraz ez dakitenei aldibereko itzulpena eskaintzea, gaztelaniatik euskarara.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko martxoaren 4a
14. urtea - 623. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi eta Paul
Bustindui Revuelta.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Anbotopeko elkar-teko bazkideek Arrazolako eraikina utziko dute

Auzitegi Gorenerako saiakerak huts egin ostean, eraikina uzteko pausoak ematen ari dira

ATXONDO J.D.

Zortzi urtez, Anbotopeko elkar-tea eta udala epaitegi-tan ibili dira, elkar-tea zegoen Arrazolako eraikinaren erabilera esku-bidea zela-eta. 2014an, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak udalari eman zion arrazoia, eta ostean, Auzitegi Gorenak ez zuen onartu tramitera Anbotope elkar-tekoen errekurtsioa. Bide legal denak agorturta, bazkideen batzarra egin zuten egoera ez-tabaidatzeko. Egoera onartu dutela, eta eraikina uzteko epaitegi-ko aginduaren zain daudela adierazi du Jon Elgezabal zuzendaritzako kideak.

Birritan batu dira alkateagaz, eta “luzapen mugatuko kontratua proposatu genion, baina ez zuten onartu”. Edoze-lan ere, “egun batzuk gehiago behar bagenituen, ez zegoela arazorik esan ziguten”. Elgezabal-en berbetan, “orain, eguna datorrenenerako prest egon gura dugu, eta, beharbada, muga-egunaren aurretik utziko du-gu eraikina. Normalatsunez

egin gura dugu”. Aste honetan bertan, elkar-teko ondasunen in-bentarioa egin dute (mahaiak, edariak...), eta prezioak jarri dizkiete. Gura duten bazkideei zerrenda bidaliko diete, gura dutenek eskuratu ditzaten.

Elgezabal-en esanetan, batzarrean “ez nuen inor haserre ikusi; gehiago zen etsipena”. “Urteak eman ditugu elkarre-kin, lagunak egin ditugu, eta pe-na ematen du”. Beraz, baliteke beste tokiren bat bilatzea.

Udala aukerak aztertzen

Dabid Cobos alkatearen esanetan, ez dute luzapen mugatuko kontratua onartu, “hileetan egitekoa zen kontua zortzi urtez luzatu delako, eta guk eraikin hori berrerrabiltzeko proiektua martxan dugulako”.

Eraikin horri erabilera emateko aukera desberdinak lantzen ari dira. Pare bat astean, proposamen horiek prest izatea espero dute. Ondoren, Arrazolan, herri batzarra deituko dute, aukerei buruz eztabaidatzeko.



Anbotopeko elkar-tea Arrazolan dago, herri eskola zegoen eraikinean.

Zumba maratonia egingo dute domeka honetan

MAÑARIA M.O.

Domeka eguerdian, zumba maratonia hartuko du Mañariko plazak, emakume eta gizonen berdintasunaren alde. Duela urtebete, zumba ikastaroan parte hartu zuten herriko hainbat emakumek, eta afizio hori, denbora pasa arren, ez da amatu. Hain zuzen ere, iazko martxoaren 8ko ekitaldien harira ere erakustaldia burutu zuten partaideek. Etzi, eguerdian hasiko da zumba maratonia, 12:00etan.

Gero, bazkaria

Ekitaldiak ez dira, baina, maratoniagaz amaituko. Izan ere, kirola egin ostean, indarrak hartzeko aukera edukiko dute parte-hartzaileek. 14:30erako bazkaria egongo da prestatuta, antolatzaileek azaldu dutenez. 20 euro ordaindu beharko dira.

A-8ko auziaren gaineko mozio bana onartu dute

EH Bilduk eta EAJk nork bere mozioa babestu zuen, eta bestearenean abstenitu egin zen

IZURTZA J.Derteano

Azken udalbatzarrean, A-8 autobideari buruzko mozio bana onartu zuten. Udalbatzarra osatzen duten alderdi biek, EH Bilduk —Gobernu Taldea— eta EAJk mozio bana aurkeztu zuten. Nork berea babestu zuen, eta bestearenean abstenitu egin zen, eta, ondorioz, biak aurrera irten ziren. Edukian baino, mozioen idazkeran zeuden diferentzia nagusiak.

EH Bilduren mozioak jasotzen duenez, gaur egungo egoerak “diskriminazio bidegabekoa dakarkie Durangaldeko herri-tarrei”, eta Aldundiari hori onartzeko eskatzen diote. Horren aurrean, aipatutako egituraren mantenua Durangaldeko eta Lea-Artibaiko bizilagunak “diskriminatuko ez dituen fi-

nantzaketa-sistema baten bitartez” egiteko eskatzen dute.

EAJren mozioak dio A-8a N-634aren alternatiba gisa era-

Ordainsariak “diskriminazio bidegabekoa” dakar, EH Bilduren mozioak jasotzen duenez

biltzeak “gastu handia” dakar-kiela Durangaldeko erabiltzaileei: “Aldunditik beherapen batzuk jarri ziren arren, hauek berrikusi eta hobetu beharko lirateke, dela hobariak aplikatuta, dela bide alternatiboak hobetuta edo bestelako proposamenak bideratuta”.

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · MARTXOAK 5
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

GOIERRI · MARTXOAK 12
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ARRASATE · APIRILAK 21
OSTEGUNA, 17:30 / Aula Magna

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · MARTXOAK 5
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

BILBAO · MARTXOAK 12
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

BIDASOA · APIRILAK 16
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORATZA · MARTXOAK 12
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

ARETXABALETA · MARTXOAK 12
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 19
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZII

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

MAITE CARRERAS
Ingeniaritza elektronikoa
Ikasle ohia eta ingeniaria
AIRBUSen.

#erronkarakoprest

Harrera Taldea: Otxandiora bizitzen datozenei herrian integratzen laguntzeko

Kanpotik datorren bizilagun berriaren testuingurua aztertu, eta horren arabera laguntza eskaintzeko prest daude



Otxandioko Harrera Taldea osatzen duten kideetako batzuk udaletxe pareko plazan. Lehiur Elorriaga

OTXANDIO Joseba Derteano Otxandioko edozein taberna: barraren punta batean herriko lagun talde bat, eta bestean herrira bizitzen etorri den bizilagun berria. Lehenengo aldia da, eta agurrik ez, nor berera. Baina hurrengo egun, aste eta hiletan ere, berdin. Bizilagun etorriberriak, beharbada, gustura egingo lituzke barraren alde batetik bestera dauden bost metroak,

egunero ikusten dituenekin berriketalditxo hasteko. Eta, bertakoak ere desiratzen egon daitezke ongiatorria egiteko, baina bada bien artean harresi ikusezin bat hartueman hori eragozten duena. Horma hori eraitsi, eta herrira bizitzen datozenei integratzeorako erraztasunak eskaini nahian, harrera talde bat sortu dute, Otxandion. Izan ere, “sarritan horixe da zailena,

lehen kontaktua egitea”, dio talde horretako Mikel Sanchezek.

Otxandioren etorkizuna erakitzea helburu duen Herri-ola herrigintza egitasmoko Migrazio taldetik irten zen ideia. Sasoi batean udaleko batzordea zena, talde autonomoa da gaur egun, eta hainbat helburu ditu: herriko kultur aniztasunari buruzko gogoeta egitea, herritarrei eurrei begirako lan pedagogikoa

garatzea..., eta kanpotik datozenei integratze inklusiborako erraztasunak eskaintzea. Bide horretan, Harrera Protokoloa landu dute, azken udalbatzarrek onartu zuena: “Iruditu zitzagun interesgarria izango zela herri-r datorren jendeari laguntzeko mekanismo bat martxan jartzea”, gogoratu du Migrazio Taldeko Iñaki Pujanak. Herritar berri denei begirakoa da, datorren lekutik datorrela ere: Euskal Herriko beste herri batetik, Europatik zein mundu zabaletik.

Protokolo horrek hainbat lan tresna eskaintzen du —herriko eta udaleko azpiegitura zein baliabideak hainbat hizkuntzatan jasotzen dituen Baliabideen Gida, esaterako— eta Harrera Taldea da horietako bat. Zortzi lagunek osatzen duten taldeak kanpotik datorrenari herriko integratzeorako ahalik eta erraztasun gehien ematea du helburu: herria ezagutzen lagunduz, ohiturak erakutsiz, dudak argituz, hartuemanak erraztuz... “Sarritan, gaxa da lehen pauso hori euren ematea, eta Harrera Taldeagaz bide hori erraztu gura dugu”, dio Migrazio Taldeko Joseba Irabazalek.

Errola egitera lehenengoz doan edonori eskainiko diote Harrera Taldearen laguntza. Bere datuak fitxa batean bete, eta Harrera Taldekoak jarriko dira beragaz hartuemanetan.

Kasuan kasuko beharriaren arabera zerbitzua eskaintzeko diseinatu dute Harrera Taldea: “Oztopoak askotarikoak

izan daitezke. Hizkuntzari lotutakoak, kulturalak, eta baita ekonomikoak ere, gerta daitezkeen pertsona horrek edo horiek hemengo aisialdi ohiturak edukitzeko modurik ez izatea”, dio Pujanak. Horregatik, garrantzi handia ematen diote aurrean horri, eta egoera desberdinei irtenbidea emateko egituratuta daude: “Bakoitzaren ezaugarriak ikusi, eta horren arabera erantzuna ematea da helburua”.

“Datorren bakoitzaren ezaugarriak ikusi eta horren arabera erantzuna ematea da helburua”

Esaterako, trabetako bat hizkuntza bada, zerbitzua hainbat hizkuntzatan emateko moduan daude, arabieraz, esaterako. Adin tarte desberdinetako jendea ere badute: “Behardaba, gazte bati errazagoa egingo zaio bere adin beretsuko batekin egotea”, dio Ana Nogueirak. Den-denek badute ezaugarri komun bat: “Komunikatzeko gaitasuna. Edonori ongiatorri on bat egiteko gaitasun osoa dute”. “Beste profil bateko jendea behar izanda ere, gure inguruan badago une edo behar puntualatan laguntzeko prest dagoenik”, gehitu du Pujanak.

Harrera protokoloa onartu berria da eta oraindik ez dute eskaririk izan, baina desiatzen daude hasteko eta ikasteko.

Euren ideia beste herrietan txertatzen laguntzeko ere prest daude. Orain aste bi, Zaldibarraren izan ziren, udal harek antzeko zerbitzua sortzeko interesa duelako. Otxandiarrek euren esperientziagaz lagunduko diete.



Monica Maldonado
Harrera Taldeko kidea;
Kataluniatik Otxandiora etorri zen, 2005ean

Txanponaren alde biak ezagutzen ditu Monica Maldonadok (Savadell, 1981). Orain hamaika urte, Kataluniatik Otxandiora etorri, eta toki arrotz batean bizimodu berriari ekin behar izan zion. Orain, Harrera Taldeko kidea da, eta kanpotik datozenei herrian bertaratzen laguntzeko gogoz dago.

“Ezagun bategaz jendea irekia da, baina hori barik gatzagoa da”

Zelakoa izan zen zure etorrera Otxandiora?

Nire bikotekidea Katalunian ezagutu nuen; iurretarra zen, eta Otxandiora etorri ginen bizitzera.

Zergatik aukeratu zenuten Otxandio?

Nire ezagun bat hemen bizi zen, eta bizitzeko oso herri atsegina zela esan zigun berak. Beraz, Otxandio aukeratzea erabaki genuen.

Iritzi horregaz jarraitzen duzu?
Bai, bai (barreak). Orain, gainera, iritzi hobea daukat.

Zure mutil-laguna eta zu ez zineten otxandiarak. Zelakoa egin zitzaizuen herrirako integratzea?

Hona etorri nintzen, hasieratik euskara ikasten hasi nintzen, eta klaseko jendearen bidez herrian beste ezagun batzuk egin nituen. Bikotekideak laneko lagun bat ere bazuen, justu koadrila berean zebilena, gainera. Zortea izan genuen.

Eskertuko zenuen Harrera Talde batek eskaintzen duen laguntza?

Baietz uste dut. Lehenengo harremana egiteko baliagarria

izango zen, eta baita herria eta herriko ohiturak ezagutzeko ere. Kontua ez da osagilea non dagoen jakitea bakarrik, baita herriko jendea, bizimodua eta ohiturak ezagutzea ere, eta horrelako gauzetan laguntzeko eskertuko nuen Harrera Taldearen laguntza.

Otxandiarak irekiak direla esango zenuke?

Ezagun bat izanda jendea oso irekia da, nire ustez. Baina kontaktatu barik zailagoa da, gehiago kostatzen dela esango nuke; kaletik zoazela agur esan, eta justu-justu.

Otxandiora etortzean euskara ikasi izanak lagundu dizu harremanak egiten?

Bai, asko. Niretzat egundoko tresna izan da jendearengana hurbiltzeko.

Orain zeu zara kanpotik datozenei harrera egiteko prest dagoena. Hasteko gogoz zaudete?

Bai, egia esanda, ilusioz gaude. Etorri berri bakoitzak bere egoera eta testuingurua ditu, baina badira partekatzen ditugun kontu batzuk: kanpotik zatozela, ez duzula inor ezagutzen... Ezagutzen ditut egoera horiek, eta lagundu dezaket. Hasteko desiratzen gaude. Horrela, Harrera Taldearen funtzionamendua bera ere hobetzen joango gara. Martxan hasi, eta ibili ahala ikusiko dugu.

Jarduera terapeutikoak burutu ahal izateko, obrak igerilekuan

Astola igeriketa taldea ez dago konforme udalak iragarri dituen aldaketekin



Obrek irautesen duten bitartean, martxoaren 21etik apirilaren 10era arte, itxita egongo da igerilekua.

ABADIÑO Itsaso Esteban
Gobernu taldeak azaldu duenez, “kirol zerbitzua hobetzeko helburuagaz” egingo dituzte obrak Astolako igerilekuan: uretan gimnasia eta *spinninga* egiteko atonduko dute igerilekua, eta kirol jarduera terapeutikoak eskaini ahal izateko, 1.40 metrora murriztuko dute igerileku-ontziaren sakontasuna. Hain zuzen ere, igerilekuaren altuera murrizketa horrek kezkatzen ditu Astola igeriketa klubeko arduradunak. Aldaketa hori eginez gero, igerilariek entrenatzeko behar dituzten gutxienezko baldintzak ez liratekeela beteko

uste dute: “Saltoak egiteko, esaterako, oso arriskutsua izango litzateke”, dio 55 kideko igeriketa taldearen presidenteak. Bestalde, lan horiek diseinatzekoan, udalak igerilari taldearen iritzia aintzat hartu ez izana ere kritikatu dute Astola taldekoek, eta idatzi bat aurkeztu dute udallean.

Igeriketa taldearen kezkarierantzunez, Jose Luis Navarro alkateak esan du, igerileku osoan sakontasuna murrizteko asmorik ez duela udalak, “zati batean” baino ez dutela egingo. “Ez da ohikoa udal igerileku batek, orain arte Abadiñon bezala,

2.20ko sakontasuna izatea”, dio alkateak. “Igeriketan lehiatzen direnek ez, baina umeek eta igerian ikasten daudenek behar dute hondoa ukitu ahal izatea”, eta “udalak erabiltzaile guztien ganentsatu beharra dauka”. Edozelan ere, igeriketa taldekoen eskaria entzun, eta “informazioa emateko” prest daudela azaldu du alkateak.

Gobernu taldeak ohar batean azaldu zuenez, obrak irautesen duten bitartean, martxoaren 21etik 28ra, itxita egongo da Abadiñoko kirolgunea, eta igerileku klimatizatua apirilaren 10ean zabalduko dute.

Astelehenean zabalduko dute udalekuetarako izen-ematea

IURRETA Aitziber Basauri
Datorren astean zabalduko du Kimuak aisialdi elkarteak antolatutako udalekuetarako izena emateko epea. Lau udaleku prestatu dituzte, adinari egokituta: Finkoa, Finko Ibiltaria, Ibiltari Txikia eta Ibiltaria. Uztailean izango dira guztiak.

Izena emateko aukera bi daude. Internet bidez, batetik: Kimuak elkarteak atal berezi bat prestatuko du webgunean, propio horretarako. Martxoaren 7ko 12:00etatik martxoaren 18ko 20:00ak arte eman ahalko da izena. Bestetik, Goiuria kulturegunera joanda ere egin daiteke, martxoaren 10etik 17ra, 17:00etatik 19:00etara.

Zozketa, apirilaren 5ean

Aurten, bestalde, zerrenda osatuko da, eta udalekuren batean eskaintzen den leku kopurua baino eskari gehiago baldin badaude, zozketa egingo da: apirilaren 5ean izango da, Ibarretxe kultur etxean, 18:00etan. www.kimuak-elkartea.eus webgunean dago informazio gehiago.

‘Euskaldun berri’ izena jarriko diote txapa-lantegiko orubeari

IURRETA A.B.

Euskaldun berri izena jarri diote Belbi txapa-lantegia bota zuten orubean egokitutako parkeari. Joan zen abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko egunean, Jaurilaritzak luzatutako proposamena aintzat hartuta onartu dute izendapena, udalbatzarrean. Hartara, euskal hiztun berriei euskara ikasteko egindako apustua aitortu gura zaie.

Hizkuntza politikako koordinazio batzordeak, Hakobak, erabakitako proposamena izan zen herrietako toki esanguratsuren bati —kale bat, plaza bat, areto bat...— *euskaldun berri* izena ematea. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako udalerri guztiei luzatu zieten proposamena. Hakoba batzordean, honako hauek parte hartzen dute: Eusko Jaurilaritzak; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek; eta Gasteizko, Bilboko eta Donostiako udalak. Baita Eudel udalerrien elkarteak eta Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak ere.

80 lagun inguru batu dira Sagardo Eguneko jaialdian

Zezipala eta Okiltxiki sagardoak dastatu ahal izan zituzten zapatuko jaian

GARAI M.O.

Zapatuan, herriko lehen Sagardo Eguna ospatu zuten, Garain. Besteak beste, herriarrek egindako Zezipala eta Okiltxiki

sagardoak dastatzeko aukera eskaini zuten. Trumoitte kultur elkarteak antolatuta, 80 bat lagun batu ziren sagardoaren bueltan.



Sagardo Egunean parte hartu zuten hainbat lagun, talde argazkian.

Gazte koadrila batek auzolanean eta era naturalean egiten duen Zezipala sagardoak dastatu ahal izan zen, alde batetik, eta bestetik, garaitarrek lagunduta sortzen den Oiartzungo Okiltxiki sagardoak.

Parrilan prestatutako jatekoa eduki zuten, eta DJ Bull egon zen musikagaz giroa berotzen

Gainera, parrilan prestatutako jatekoa eduki zuten, eta DJ Bull egon zen musikagaz giroa berotzen. Horrela, arratsaldean hasi, eta gauera arte luzatu zen sagardoaren inguruko jaia.

FJI - MOTOR
www.fji-motor.com
comercial@fji-motor.com · Tel.: 637 500 960

MERCEDES E250 CDI COUPE, RACEren ZIURTAGIRIAREKIN
 2011ko martxoa. 86.400 km. Full ekipamendua. Memoriadun jesarlekuak, avantgarde automatikoa, sport jesarlekuak, elektrikoak, beroa handitzekoak, klimatizagailu automatikoa, aurrerantz eta atzerantz aparkatzeko distantzia kontrola, egonkortasun kontrola (ESP), abiadura kontrola, Xenon argiak, aleaziozko hagunak, pintura metalizatua, besoa pausatzeko aurrealdean, kanpoko atzerako ispiluelektrikoak, satelite bidezko nabigazio sistema, larruzko tapizieria grisa, larruzko bolante multifuntzionala. Urtebeteko bermea eta sorospena errepidean. 29.999€

BMW 525D, RACEren ZIURTAGIRIAREKIN
 2010eko urria. 78.366 km. Full ekipamendua. CD. MP3. Ordenagailua. Bluetooth. Ispiluelektrikoak, beroa handitzekoak eta eraigarriak. Xenon, laino-argiak, jesarleku elektrikoak, sabai elektrikoak, klimatizagailu automatikoa, aurrerantz aparkatzeko distantzia kontrola, atzerantz aparkatzeko distantzia kontrola, abiadura kontrola (ESP), satelite bidezko nabigazio sistema. Larruzko tapizieria beixa, sabai altxagarri/korrigarria kristal elektrikoduna, larruzko bolante multifuntzionala, udarako pneumatiko-jokoa, neguko pneumatiko jokoa. Urtebeteko bermea eta sorospena errepidean. 27.499€

Ibilgailu berri baten bila bazabiltza, edo erabilitakoa, historikoa, bildumazkoa edo amerikarra, jarri gurekin harremanetan, esaiguzu zein den zure nahia edo beharra eta zure aurrekontua, eta guk aukerarik onenak bilatuko ditugu mundu osoan, gero zuk zuretzat egokiena aukeratu dezazun. Auto guztiek R.A.C.E.-ren berme ziurtagiria dute.

Albert Botran (Molins de Rey, Herrialde Katalanak, 1984) | CUPeko parlamentaria eta Historian lizentziaduna

“Prozesu katalanaren arrakasta herritarren iniziatiban dago”

Albert Botran CUPeko parlamentariak partaidetzaz berba egingo du, bihar

DURANGO Markel Onaindia Durangoko EH Bilduk partaidetzaren inguruko udal ordenantza bat landu du herritar eta elkarteekin batera, eta aurkezpen modura, berbaldi bat antolatu du biharko, martxoak 5. 11:30ean hasiko da, Hizkuntza Eskolako aretoan, eta hiru politikari gonbidatu dituzte: Miren Larrion (EH Bildu Gasteiz), Alvaro Montes (Ferrol en Comun) eta Albert Botran (CUP). Kataluniako parlamentaria da Botran, eta partaidetzaren garrantziaz berba egin du telefonoaren bestaldetik.

Irailaren 27ko hauteskunde kanpaina, CUPekoek esaten zenuten jendea dela motorea. 80ko hamarkadaren erdialdean udal batzuetako alkatek lotuta sortu ginenetik, partaidetza beti izan da guretzat politika artikulatzeko modu bat. Politizatze, kontzientzia hartze, eta boterea gertuagotik kontrolatzeko balio du.

Hauze zen zuen goiburua: ‘Astiro goaz, bidean urrun goazeko’. Baina presak eta alder-

dien interesak horren aurka doaz sarri... Bai, horrela da. Erabakiak modu geldoagoan hartzeak hausnarketa ahalbidetzen du, baina ezin dugu ahaztu kontrolatzen ez ditugun eszenatokietan mugitzen garela. Partaidetza zabalaren printzipioa eraginkortasunagaz konbinatu nahi dugu, erabakiak gaurko gizartearen eta borroka politikoaren erritmoan hartu ahal izateko. Atertoa azkarra bada, zuk ere izan beharko duzu kasu batzuetan.

Masen inguruko bozketak oihartzuna eduki zuen. Zelan baloratzen duzue prozesua? Erabakia oinarriagaz hartzea oso ona izan zela uste dut. Militantzia aparte, jarraitzaileek ere botoa eman ahal zuten. Baina, nire ustez, hurrengo aldetan antolakundeak proposamen landuago bat aurkeztu beharko luke, eszenatokia hain zabala izatea saihesteko. Erditik zatitu zen, eta ondorio zaila zeukan.

Baina, prozesu katalana herritarren parte-hartzeagatik bereizi izan da...

Kalean hasi, eta gero alderdi eta instituzioek jarraitzen dioten prozesu baten eredu da Kataluniakoa. Duela hamar bat urte hasi zen, aurreikusi ezin zitezkeen manifestazioekin. Gero, independentziari buruzko kontsultak etorri ziren, oinarriko demokraziaren, horizontaltasunaren eta autoorganizazioaren ariketa zirenak. 2012an, manifestazio handiak etorri ziren, baina prozesuaren sorrera eta arrakasta herritarren iniziatiban daude. Horrek prozesu oso zabala izatea eragin du.

Presio horrek alderdien posizioak mugitu ditu, ezta? Argi dago. 2012an, Artur Mas akordioaren aldeko proposamen batez aurkeztu zen, eta urte horretako manifestazioaren ostean, amaiera ipini zion proposamen horri. Estatuak atea itxi zuenean, manifestazio masiboa gertatu zen, eta horrek testuinguru politikoa baldintzatu zuen. Estatuaren ate hori ez zen frustrazio bilakatu, eta jendeak erantzun eraikitzailea eman zion. Orduan, CIU mugimendu hori kapitalizatzen



Parlamentari izateaz gainera, bozeramaile ere izan da, sarri, Botran.

saiatu zen. Egoera hau ez dakigu zelan amaituko den, Estatuagaz gatazka bat daukagulako, baina jendea mobilizatuta egotea erabakigarria izango da, irtenbidea emateko unea heltzen denean.

Orain berba gutxiago egiten da Kataluniaz... Diskrezioa egotea ere ona da. Prozesuek frenetikoak izan behar ez dutela aldarrikatzen dugun lez, hedabide guztien begi

-puntuan egoteak ere erabakien kalitatean eragiten duela uste dut. Esandakoa beteko dugula espero duten aurrean erantzun behar dugu.

Eta orain, zer? Estatuak aldebakarreko erabakia hartzea behartzen gaitu. Ez dio hiritargoari ahotsa eman gura. Hiru lege ditugu mahai gainean: gizarte segurantzakoa, ogasunekoa eta trantsizioakoa.

Hernandez: “Hurrengo belaunaldientzat herri alaiago bat egon dadin gabilta lanean”

Mari Carmen Hernandez biktimak presoan hurbilketa babestu du berriro, Memoriaren Plazan

DURANGO M.O. “Nire bizitzako egunik tristeena izan zen”. Mari Carmen Hernandezek berba horiekin hasi zuen bere kontaketa, Gogora

Institutuak antolatutako hitzaldian. 2000ko ekainaren 4an, ETAk bere senar Jesus Mari Pedrosa hil zuen, PPko zinegotzi zena Durangoko Udalean. Her-

nandezen arabera, hilketa gertatu aurreko urteetan, etxe azpian ere sufritu behar izan zituzten protestak. “Bere lana gustatzen zitzaion. Uzteko eskatu izan

nion, baina zergatik ezin zuen desberdin pentsatu?”.

Hilketaren ostean, kosta egiten zitzaion kalera irtetea: “Bizitza ezinezko egin zidan jendeagaz gurutzatzea asko kosta zitzaidan”. Baina, gorrotoari barrik, konponbideari egin zion lekua barrenean: “Nire alea ipintzeko konpromisoa hartu nuen”. *Mujeres en construcción* biktimei buruzko dokumentalean parte hartu zuen, eta askotariko biktimak batzen zituen talde batean ere bai. Gerora, damututako zenbait presogaz egon izan da, eta ikastetxeetan ere bere lekukotza eman izan du. “Hurrengo belaunaldientzat herri alaiago bat egon dadin gabilta lanean”.

Hernandezek sarritan babes-
tu du presoak etxera hurrera-
tzearen ideia, eta astelehenean

ere horrela egin zuen: “Hasieratik uste izan dut presoan familiak ez dutela distantzia hori egin beharrik”.

Durangon eskaintzen zuen lehen berbaldia zen Hernandezena, eta aretoa bete egin zen.

Koloretik infernura

Hernandezegaz batera Amaia Etzanizek parte hartu zuen berbaldian. Bere aita BVEk hil zuen, 1980an. Ondarroako bizitza politikoa eta kulturalaren ezaguna zen, eta mehatxatu, torturatu eta kartzelaratu egin zutela kontatu zuen alabak. Etxean zeudela hil zuten: “Hor hasi zen gure gainbehera. Koloretako bizitzatik infernura pasa ginen”.

Amaia ere *Mujeres en construcción* dokumentalean agertu zuen, eta han Hernandez ezagutu zuen, besteak beste. “Beste aldean zegoen jende bat zen, baina min berbera zeukatena. Harrera ona egin zidaten, enpatiaz, eta gorrotoa desagertzen hasi zen”. Astelehenean, lehen aldiz berba egin zuen jendaurrean. “Gure lana beharrezkoa da bake prozesuaren alde”.



Etzaniz eta Hernandez, erdian berbaldia gidatu zuen Angel Mari Unzueta bikarioa dutela.

Javi Mugica: “Ardosaltsanerako pintxo originalak sortzen ahalegintzen gara”

Ardosaltsan feria egingo da, bihar, Durangoko Landako Gunean, gastronomia zaleen gozamenerako

DURANGO M.O.

Bihar, Ardosaltsan feriaren edizio berri bat hartuko du Landa-

ko Guneak. Ardoagaz landutako platerak izango dira aurtengo nobedade nagusia, baina, ho-



Javi Mugicak hasieratik parte hartzen du Ardosaltsan azokan.

rretaz gainera, gastronomiagaz lotutako askotariko eskaintzak egongo dira. Esaterako, Saltsan kateringek pintxo bereziak ekarriko ditu, eta Javi Mugica (Donostia, 1962) izango da zeregin horretan ibiliko den sukaldarietako bat. Ofizioan urte askoan dabilen sukaldaria da, Juan Mari Arzakegaz eta Pedro Subijana gaz ibilitakoa, besteak beste. Hasieratik parte hartu du Ardosaltsanen, Saltsaneko Iñaki Uriberi pintxoekin laguntzen. “Ardosaltsanerako pintxo originalak sortzen ahalegintzen gara”, esan du Mugicak. Bihar, bost pintxo mota aurkeztuko dituzte.

Oso gustura etortzen da Mugica Ardosaltsanera: “Esperientzia oso polita da. Standean egoten naiz, baina tarte bat edukitzen badut, beste eskaintzak probatzeko aprobetxatzen dut”.

Esperientzia pertsonalaz aparte, azoka moduan ere era baikorrean baloratzen du Ardosaltsan: “Feria desberdina da. Jendea standetan kontaktuan egoteko saiakera egiten da. Gainera, Durangaldean gogo handia dago horrelako gauzak probatzeko”.

Asteburu honetan, eskualdez kanpoko jendea ere etortzen da

Durangora. “Urterik urte, bisita egiteko feria lez finkatzen dabil. Jendea, Ardosaltsan noiz helduko itzaroten egoten da”, esan du Mugicak. Berba oso onak izan ditu Iñaki Uribe antolatzailearentzat: “Meritu handia dauka Iñakik. Lan handia egiten dabil zonalde horretako gastronomiaren inguruan”.

Ofizioan urte askoan dabilen sukaldaria da, Juan Mari Arzakegaz eta Pedro Subijana gaz ibilitakoa

“Feria desberdina da. Jendea standetan kontaktuan egoteko saiakera egiten da”

Goizetik gauera

Horrela bada, bihar gastronomiaren zaleek beteko dute Landako Gunea. Goizetik gauera, etenaldirik barik, dozenaka ardo eta makina bat jaki dastatzeko aukera egongo da.

Emakume langileen alde agertu da udala

DURANGO M.O.

Herriaren Eskubidea alderdiak mozio bat aurkeztu zuen osoko bilkuran, martxoaren 8aren harira. Udalak azpiktratatuta dituen zerbitzuetako emakume langileen aldekoa izan zen; euren lan baldintzekiko konpromisoa hartzea zen helburua. “Azpiktratatutako zerbitzuetako langileen baldintzetan, udalaren erantzukizuna onartzea” eskatu zuten mozioan, eta baita klausula sozialak ezartzen jarraitzea ere. Zerbitzuen adjudikazioa egiterakoan, berdintasunaren eta lan eskubideen ikuspegikin baldintzatzen jarraitzea adostu zuten. Horrez gainera, azpiktratatuta edo kanpora aterata dauden zerbitzuak berreskuratzeko azterketa bat egitea onartu zuten.

EAJK, EH Bilduk eta PSE-EEK ere babestu zuten. PP abstenitu egin zen. Fran Garateren ustez, “legea aldatu bitartean, ez dauka zentzurik” ekimen horrek.

Kanpora aterata dauden zerbitzuak berreskuratzeko azterketa bat egitea onartu dute

EH Bilduri informazioa, epailearen aginduz

EH Bilduk 15 dokumentu eskatu zizkion alkateari

DURANGO M.O.

EH Bilduk 15 dokumentu eskatu zizkion Aitziber Irigoras alkateari, joan zen udazkenean. Batez ere, udaleko egoera ekonomikoa islatzen zutenak. Baina, erantzunik jasotzen ez zutela-eta, salaketa ipini zuten auzitegian. Bada, epaileak arrazioia eman dio koalizioari, eta eskatutako agiriak jaso beharko dituzte alkatearengandik.

Hala ere, Dani Maeztu zinegotziak sare sozialetan adierazi du oraindik ez dutela informazioa jaso. Gaineratu du “tristeia” iruditzen zaiola talde politiko batek justiziara jo behar izatea informazioa eskatzeko. “Baina, zoritxarrez, horixe da Durangoko Udaleko eguneroko ogia, traba eta oztopoak informaziorako eta partaidetzarako. Gugaz hori egiten badute, pentsa zelan

tratatzten dituzten herritarrek”.

Udalak 15 eguneko epea dauka epaia errekurritzeko, eta prozesuaren gastuak bere gain utzi ditu epaileak.

Udaleko egoera ekonomikoak eztabaida sortu du azken hilabeteetan. EH Bilduk adierazi zuen udalak 7,9 milioi euroko zorra zeukala, baina alkateak gezurtatu egin zuen hori. Gero, kanpo azterketa bat egitea eskatu zion udalak Aldundiari, EH Bilduk eta PSE-EEK exijitu ostean.

Epaileak arrazioia eman dio koalizioari, eta eskatutako dokumentuak jaso beharko dituzte alkatearengandik

Hizkuntza aktibismoari buruzko tailerra antolatu du EHEk

Euskaraz bizitzeko ahalegina egiten dutenei baliabideak eskainiko dizkiete

DURANGO M.O.

Euskararen alde egotetik, euskararen alde egitera pasatzeko deia zabaldu du EHEk, eta norabide horretan, hizkuntza aktibismoari buruzko tailerra

antolatu dute, Durangon. “Bada garaia, jarreretan soilik zentratu baino, jokabide aldatetetan zentratzen hasteko”, esan dute. Martxoaren 12an izango da tailerra, Ibaizabal ikastolan,

10:00etatik 18:30era bitartean –bazkaltzeko atsedenaldiragaz-. Izena emateko epea domeka honetan amaituko da; durango@euskalherrianeuskaraz.org helbidera idatzi ahal da, edo 655 719 539 telefonora deitu ere bai. Lekua mugatua dela esan dute.

Baliabideak

Tailerraren bidez, hainbat baliabide eskainiko dizkiete euskaraz bizi nahi eta ahalegina egiten dutenei, “hizkuntza praktika sumisoak” gainditzeko helburuz. Beraz, erdaldunekin edo euskara ez darabiltenekin egotean, euskara menpeko ez bihurtzeko tresnak dira. Gainera, baliabide horiek era kolektiboan lantzeko aukerak ere aztertuko dituzte. Gemma Sangines psikologoak gidatuko du saioa.



Durangoko EHEko kideek tailerraren irudikapena egin dute prentsarako.

Komunikazio ez sexista lantzeko kodea sinatu du ANBOTOk

51 hedabide eta publizitate agentziak bat egin dute Emakunderen ekimenagaz



Izaskun Landaia eta Josu Erkorekak parte hartu zuten ekitaldian.

DURANGALDEA J.Derteano Publizitate eta komunikazio ez sexista bultzatzeko kode deontologikoagaz bat egin zuten, joan zen barikuan, 51 hedabide eta publizitate agentziak, Gasteizko Lendakaritzan. Jone Guenetxea ANBOTO astekariko zuzendariak ere sinatu zuen kodearen oinarriak azaltzen dituen dokumentua.

Izaskun Landaia Emakundeko zuzendariak azaldu zuenez, kodea lansaio askoren emaitza da. Agentziek eta hedabideek eztabaidatutako eta landutako dokumentu bat da,

Begira batzordearekin batera. Landaiaaren arabera, "pauso honekin asko egin dugu aurrera, baina oraindik asko dugu

Izaskun Landaia: "Badakigu balioak aldatzeko komunikabideok duzuen indarra"

egiteko. Hau ez da helmuga, abiapuntua baizik". Emakundeko buruak gaineratu zuenez, "gizartea eraldatzeko balioak

aldatu behar dira. Eta badakigu balioak aldatzeko komunikabideek duten indarra".

Komunikazioaren atalean, dokumentua sinatu duten hedabideek honako konpromiso hauek hartu dituzte: arlo eta eremu guztietan emakumeen protagonismoa sustatzea, emakume eta gizonen aniztasuna erakustea, elkarrizketetan eta artikuluetan emakumeei eta gizonari trataera berdina ematea, emakumeen biktimizazioa baztertzea, eta emakumeak gizarte-eragile aktibo gisa ere erakustea, besteak beste.

Abian prozesuko batzarrak, asteburuan

DURANGALDEA M.O. Ezker Abertzalea Abian izeneko eraberritze prozesuan murgilduta dabil, eta ekarpen fasea amaituta, eztabaidari ekingo dio orain. Duela sei urte *Zutik Euskal Herria* izenpean zehaz-

tutako estrategia gaur egunera egokitzea da Ezker Abertzalearen helburua. Batzarrak herri-rik herri egingo dituzte, hiru ataletan banatuta. Aste honetan zehar hasi dituzte batzarrak, eta asteburuan burutuko dituztenekin eskualde osora ailegatuko dira.

Gaur, esaterako, Berrizen elkartuko dira, 18:00etan. Bihar, Abadiñon (10:00etan), Otxandion (10:00etan), eta Mañarian

(10:00etan). Mañarikoan izur-tzarrak ere batuko dira. Dimekan, Durango (16:00etan), Zornotza (17:00etan), Elorrio (11:00etan), eta Iurretaren (16:00etan) txanda izango da. Zaldibarrekoei otsailaren 27an egin zuten eztabaida, eta Mallabikoak martxoaren 11n elkartuko dira, 19:00etatik aurrera.

Eztabaidarako txostena eskuragarri dago www.ezkerabertzalea.info atarian.

50.000 euro zertara bideratu erabaki dute

2016rako, hamar udal inbertsio zehaztu dituzte

ZALDIBAR I.E. EH Bilduko gobernu taldeak prentsaurrekoa egin zuen, atzo, 2016rako udal aurrekontuko inbertsioetarako gordetako 50.000 euroko diru-atala zein proiektu gauzatzera bideratuko den jakitera emateko. Zenbateko hori zer hamar proiektutan inbertitu, bi batzarretan parte hartu duten herritarren bozken bitartez erabaki dutela azaldu du gobernu taldeak.

Kale-garbitzeko makina bat erostea izango da 50.000 euroko diru-atal horren zati handiena hartuko duena: 21.660 euro bideratuko dituzte horretara. Batzarretan parte hartu duten zaldibartar gehienek adostasuna lortu duen beste proiektu bat, Olazar ingurua hobetzeko

lanak egitea da. Barbakoa bat eta tirolina bat ipini, eta bertako zuhaitzak landatzeko, 12.518 euro inbertituko dute.

Hauek dira, egingo dituzten beste lanak: pintadak garbitzea (8.000 euro); Santa Isabel kalean ibilgailuentzako abiadura murriztaileak ipintzea (3.132 euro); Olazarko biribilgunean hesi bat jartzea (3.345 euro); eskolako jolastokiaren itxitura atontzea (2.630 euro); Agirre Lehendakaria parkean dagoen porlanezko jesarlekuan egurra ipintzea (1.089 euro); txakurren jabeak gorotzak jasotzeko sentsibilizatzeko kanpaina bat egitea (1.500 euro); eta jatorri ezberdineko zaldibartarrei zuzenduriko harrera protokolo bat martxan ipintzea (1.200 euro).



Udalak 12.518 euro bideratuko ditu Olazar ingurua atontzera.

2016ko ur banaketaren esleipena berritu dute, Mallabian

MALLABIA P.B. Mallabiko udalak ur banaketa eta lotura duten zerbitzuen kontratua formalizatu du. Aquarbe S.A.U. enpresa kontratatari 118.459 euroko aurrekontuagaz (BEZa barne) esleitu zaio Mallabiko Udalak iragarritako zeukan enkantea. 2016ko otsailaren

5ean hasi zen ur kontratua, eta urtebeteko baliozkotasuna izango du.

Lehiaketa iragarkia 2015eko abenduaren 17ko 242 zenbakidun BAO-n argitaratu zen. Aquarbe S.A.U. enpresak uraren ziklo integralarekin lotutako prozesu guztiak kudeatzen ditu: uraren bilketa, arazketa, garraioa eta banaketa, herritarrek osasun berme guztiarekin kontsumitu dezaten. Mallabiaz gain, Durangaldeko Zornotza udalerrian ere enpresa hau arduratzen da uraren kudeaketaz.

MARTXOKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558



UR URDAIBAI.
JARDUERAK URDAIBAIEN
Urdaibaiko ibaiaren
jaitsiera Kayak /
Kanoa / Sup
7 pertsonentzat.



HITZ LIBURU-DENDA.
LIBURUA ETA CDa
Patrick Modianoren
"Dora Bruder"
liburua eta
Esne Beltzaren
"Esna" CDa.



EROSKI.
SUKALDEKO ROBOTA
Thermogrind Priton
1,7L. Berehalako
saltsa, zopa eta
irabiakiak.



SALTSAN KATERIN.
EGUEN SALTSAN
Kalitate handiko
produktuen
dastaketa, 2
pertsonentzat.
4 egile-pintxo,
2 ardorekin
lagunduta.



**UNAMUNZAGA
HORTZ-KLINIKA.**
ESKUILA ELEKTRIKOA
Hortzetako eskuila
elektrikoa PC800
sensitive ORAL-B.



OTSAILEKO IRABAZLEAK

- > **HITZ LIBURU-DENDA.**
Maria Teresa
Basabe Amezuza
- > **UNAMUNZAGA
HORTZ-KLINIKA.**
Ana Maria
Isasi Lamikiz
- > **SALTSAN KATERIN.**
Nerea Mujika Ulazia
- > **GAU-TU.**
Larraitx Zarrabeitia
Salterain
- > **FORUM SPORT.**
Uri Salazar Sarasua

‘anboto.org’ atariaren aplikazioa mugikorretan eskuragai dago

Aplikazioaren bidez, notifikazioak mugikorrean jasotzeko aukera dago



Codesyntaxek garatu du ANBOTOn aplikazioa.

ANBOTO M. Zuazubiskar ANBOTOk aplikazioen munduan lekua hartzearen aldeko apustua egin du. Tokikomeko beste zenbait komunikabiderekin lankidetzan, eta CodeSyntaxeko kideen laguntzagaz, abentura berri honetan murgiltzea erabaki du ANBOTOk. Tresna berri hau komunikabide txikien arteko elkarlanaren fruitua da.

Joera berrietara moldatu behar dela ikusita, eta jakinda irakurleen %40 webgunetik datorrela, tresna berri honi tokia egingo zaio ANBOTOn. Honi esker, irakurleei erraztasun gehiago ematea lortu nahi da.

Aplikazioak zenbait abaintaila eskaintzen ditu. Irakurlea modu erraz batean sartu ahal da ANBOTOr, eta uneoro izango ditu albiste guztiak eta agenda eskura. Horrez gain,

ANBOTOn aplikazioa, doan, IOS eta Android sistema operatiboetan jaitsi daiteke

telefono gida ere bertan izango da, eta bilatu nahi den zenbakia erraz erraz topatu, eta segituan deitzeko aukera emango digu.

Beste ezaugarri garrantzitsu bat ere badu aplikazioak: notifikazioak mugikorrean jasotzeko aukera eskaintzen du. Gura izanez gero, nahi dugun herria aukeratuta, bertako albistery bat webgunera igotzen den momentuan norberaren mugikorrean abisua jasotzeko aukera ematen du.

Abantaila hauez guztiez gain, ANBOTOr informazioa bidaltzeko aukera emango du, modu erraz batean.

ANBOTOn aplikazio berri hau doakoa da, eta Android eta IOS sistema operatiboak dituzten mugikorretan erabiliko ahalko da.

‘Zein polita dan zu Euskaraz entzutea’ bideo lehiaketa

BERRIZ M. Zuazubiskar Euskara bultzatzeko bideo lehiaketa antolatu dute, Berri-zen. Lehiaketako gaia euskara izango da, eta beraien egunerokotasunean, erosketak egiterakoan, jolasterakoan, parrranda egiterakoan... herrian nola erabiltzen duten erakutsi beharko dute berriztarrek

Martxoaren 1etik apirilaren 8ra arte dago lanak aurkezteko aukera. Lanok bakarka edo taldeka egin daitezke, eta bideoek, gehienez, bi minutuko iraupena izan beharko dute. Adin txikikoek ere beraien lanak egiteko aukera izango dute, baina, Berrizko Udaleko Euskara Zerbitzuan guraso zein tutoreen baimena aurkezte ezinbesteko izango dute.

Behin lan guztiak aurkeztuta, apirilaren 11ko astean, epaimahaiak horietatik batzuk aukeratu, eta udaleko web orrian eta sare sozialetan jarriko dituzte. Ordutik aurrera, herri-erretarrek bozkatzeko aukera izango dute. Maiatzaren hasieran bideo lehiaketako irabazleak nortzuk diren jakinaraziko da, eta sari bi banatuko dira, bata herritarrek aukeratutakoa, eta epaimahaiak emandakoa bestea. Lehiaketako bi bideo onenek saria izango dute eta partaide irabazle guztiei abentura egun bat oparituko zaie.

SEI HANKAKO MAHAIA

FRAN GARATE
PP



Mina saihetsezina da, sufrimendua aukerakoa

Behin, dotoretasunaren eta jatoritasunaren printzesa kontu kontari etorri zitzaidan. Zegoen lekutik irten, eta bidaia-tzea nahi zuela esan zidan. Egia esan, zerbait sakonagoa esan behar zidala uste nuen. Bere gogoko esaldi bat esateko eskatu nion. “Mina saihetsezina da, sufrimendua aukerakoa”, esan zidan.

Esaldia entzundakoan, ondo ulertzeko aukera izan neza-keela bururatu zitzaidan. Eta badaukat horretarako aukera. Kontua da egun batzuk igaro behar ditudala saharar errefuxiatuekin, Algerian, giza laguntzari esker bizi diren kanpamenduetan, hain zuen.

Bidaia-ri ekin aurretik ari naiz lerrook idazten, eta irakurtzen dituzuenerako bueltan izango naiz, Durangon, dena pentsatutako moduan irtenez gero, behintzat.

Nago, sahararrekin egongo garen lau-bost egunetan argi-ago ikusiko dudala esaldi horren esanahia, eta argiago zer egin behar dugun gure aldetik, zer hobetu eta ze aldaketak egin, munduko txoko guztietan dauden sufrimenduak ekiditeko.

Eskerrak eman nahi dizkiot dotoretasunaren eta jatoritasunaren printzesari halako esaldi egokiarekin erantzuteagatik. Benetan nabilela ikus dezan, dagoen lekutik irten dadin saiatuko naiz, eta bidaia egin dezan. Goza dezala, gozarazi dezala, eta bere aldetik egin ahal duen guztia egin dezala sufrimendua leku guztietatik desagertu dadin.

Irribarretsu diot hori, Chaplinen esaldi bat gogoan: “arazo asko ditut bizitzan, baina nire ezpainez ez dute horien berri. Nire ezpainez irribarre egiten dute beti”.

**Erredakzioan itzulia*

DURANGALDEA ASTEON

Txartelak salgai, Gazte Eguneko bazkarirako

ZORNOTZA > Urtza eta Santxan tabernetan daude salgai, martxoaren 12an Zornotzan egingo duten Gazte Eguneko bazkarirako txartelak. Umeentzako tailerren eta goizeko kalejiraren ostean, 15:00etan egingo dute bazkaria, parke gorrian. Habeas Corpusen kontzertua eta Zesuma taldearen erromeria izango dira, gauean.

Misiolarien topaketa, Urkiolako Santutegian

ABADIÑO > “Misio bokazioa suspertzeko”, eta misiolariak eta misio taldeetako partaideak elkartzeko helburuagaz antolatu dute Urkiolako Santutegiko biharko hitzordua. Kongon eta Ekuadorren lanean dabilen misiolariak gonbidatu dituzte ekimenean parte hartzera. Otoitz ibilaldi bat egingo dute, besteak beste.

Udal euskaltegiko III. azokan bildutakoa

DURANGO > Abenduan udal euskaltegian burutu zuten III. azoka solidarioan bildutako 563 euroak, JAEDek beharritza duten herritarren artean banatzeko eman dituztela azaldu dute ekimen horren antolatzaileek. Euskaltegiko ikasle eta langileek emandako denetarikoz gauzen salmentatik bildu dute diru hori.

IRITZIA



Gutuna

Ondorengo fotodenuntzia bidali du Esther Egizabal Barañanok ANBOTOr. Durangoko monumentuen egoeraz kezkatuta dagoela azaldu du Egizabalek. “Pintadaz eta zikinez beteta daude, bai Landako Gune ondoko monumentua, baita eraikinaren beste aldean dagoena ere. Instituzioek arreta gehiago jarri beharko lukete artelak behar den bezala mantentzeko”.

Esther Egizabal Barañano (Durango)

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

Berbaz

Edurne Zenitagoia (Elorrio, 1978) eta Ianire Jaio (Elorrio, 1981) | Bizipoza elkarteko kideak

“Umea osotasunean bizi da, ez du arrazoirik behar ondo egoteko; esentzian ume hori gara”

Cristobal Gutierrezen eskutik ezagututako bizi ikuskera oinarri hartuta sortu dute Bizipoza elkarte, Elorrion



> BERBAZ Aitziber Basauri
Umeekin dugun harremana aitzakia moduan hartuta, norberaren burua zaintzea oinarri duen CAI (Cuidado del Alma Infantil) bizi ikuskera lantzen du Bizipoza elkarteak. Hasiberria da elkarte eta Elorrion dute egoitza.

Nola sortutako elkarte da Bizipoza? Nola elkartu zineten?
Ianire Jaio.: CAI bizi ikuskerako maisua den Cristobal Gutierrez ezagutu genuenean hasi zen dena. Sei urte dira ezagutu nuela, eta bost urte Bartzelonatik Elorrion topaketa batzuk egitera etorri zela; hilean behin etortzen da. Hala ere, ikasitakoa egunerokotasunera eramanean, eta oinarri bat emateko hiru lagun batu izan gara etxean. Duela hiru urte hasi ginen, maisua egon ez arren, beragaz ikasitakoa gure artean zaindu eta sakontzeko; forma emateko. Dena den, CAI-an daudenei eta gura duenari zabaltzeko gogoia izan dugu. CAI bizi ikuskera hau denon artean partekatzen. Horretarako sortu du elkarte.

Zertan oinarritzen da CAI?

I.J.: Zaintzeaz arduratzen gara CAI bizi ikuskeran. Gu geu zain-

“**CAI bizi ikuskerak askotariko mailatan zainketa bat egitera eramaten gaitu**”

tzeaz, gure bizitza, lehenengo eta behin. Horretarako, umea hartzen dugu aitzakia moduan: gureak, ingurukoak... haiek zaindu gura ditugu, baina aurretik, gure burua zaindu behar dugu. Zergatik umea? Umea unerik onenean bizi da. Ez du arrazoirik behar ondo egoteko. Ondo dago. Esentzian ume hori gara gu, Cristobal Gutierrezek dioen lez. Hartara, CAI bizi ikuskera honek gure bizitzako askotariko mailatan zainketa bat egitera eramaten gaitu; maila guztiok begiratzera, arlo guztietan nola gauden ikusteko. Gero, ahalik eta erarik alaienean, bakean egonda, umea zaintzeko.

Bizitzeko ikuspegi hori zabaltzea duzue helburu?

I.J.: Hau guztia geure artean zaintzeko sortu zen elkarte. Dakiguna geure artean zaintzen joateko. Hortik abiatuta, inork hau ezagutzeko edo ezagutarazteko gogoia badu, elkartera etor-

daiteke. Zaintza eta ongizatea ditugu helburu, eta horren haritik antolatzen ditugu ekitaldiak. Etorri gura duena jar dadila gurekin harremanetan: bizipoza.elkartea@gmail.com

Lehenengo hitzaldia izan duzue, asteon. Txertoa bai ala ez?

Edurne Zenitagoia. Elkartean ezagutzen dugun homeopata da Hannah Bruderer. Txertoaren eta sukarraren inguruan ematen ditu berbaldiak, eta hitzaldia emateko aukera eskaini genion hemen. Eta geure artean izan dugu. Erabaki oso pertsonala da txertoa ematea edo ez, baina, informazioa eskaini gura da.

I.J.: Txertoak badu CAI bizi ikuskeragaz halako lotura: txertoa gehiegizko interbentzio lez ikusten du. Ez dugu hori segurtasun osoz baieztatzen ezagutzarik, baina, irakurri eta jaso dugunagatik, gure intuizioak horri jarraitzen dio. Gure umei ez diegu txertoa jarri; jakin badakigu txertoa jartzeak badituela bere ondorioak: zenbateraino da onuragarria jartzea? Zenbateraino ez? Gogoeta egitea proposatzen dugu. Gero, bakoitza libre da txertoa jartzeko edo ez. Gutxienez, informazioa eskaini gura diegu herritarrei.

“**Ezin daiteke hobeto edo okerrago zaindu; zaindu egiten dugu, edo ez**”

Beste ekintzarik antolatzea aurreikusi duzue?

I.J.: 21 egun kexarik gabe. Proposamen hori luzatzen duen Donostiako terapeuta bat ekarri gura dugu. Zama arintzea da kontua, eta ikustea zerk egiten digun on. Ez gara jabetzen, baina, egunean hainbat bider kexatzen gara. Eta, ardura kanpoan dago beti. Oso pobre egiten gaitu horrek; harremanak oso mesfidantzazkoak bihurtzen dira... errudunik ez dagoela uste dugu. Biren artekoak dira harremanak, biok egiten dugu hartueman hori: ez dago errudun bat eta errugabe bat; bi arduradun daude, bakoitza bere arduragaz. Horri ematen diogu garrantzia.

E.Z.: Kexatzeak ez zaitu inora eramaten. Zergatik kexatzen zara? Zergatik zaude egoera horren barruan? Zure ardura ere hor dago. Beste era batera eraman zenezake egoera, edo alde batera utz zenezake. Gustura ez bazaude, alden du egoera horre-

tatik, ezta? “Uretan itotzen ari denak, kexatzen ari denak, ezin du igeri egin”, dio Cristobal Gutierrezek ere. Uneoro kexatzen ari bazara, ez duzu zure energia beste zerbaitean metatzen.

Umearen zaintzagaz lotuta, beste egiteko modu bat dagoela uste duzue?

I.J.: Kontua ez da beste egiteko modu bat defendatzea edo inposatzea, hobe delakoan. Dagoena onartu, eta, hortik abiatuta, umearen eta nire arteko harremanean hobeto nola egon gaitezkeen da helburua. Baina, horrek ez du esan gura hori bestea baino hobe denik. Ez da metodo kontua. Ezin daiteke hobeto edo okerrago zaindu; zaindu egiten dugu, edo ez dugu zaintzen. Hausnarketa horretara eramaten gaitu Cristobal Gutierrezek. Ala metodo batean murgilduta gaude hoberena dela esan digutela, eta horregatik ez gaude umeagaz? Non gaude?

Katalunian lehenengo eskola libre sortu zituen Gutierrezek. Nola ikusten duzue gai hau?

I.J.: Eskola libre asko daude, eta hauek ere badituzte gabeziak. Beldurrak, aurreiritziak, itxaropenak, presioa... pisu hori guztia kendu duen helduak zaindu beharko luke umea. Horixe da Gutierrezek defendatzen duena. Eta eskola libreetan ere, konturatu gabe, hori guztia islatu dezakete helduek umeengan.

E.Z.: CAI bizi ikuskera ez da hartzea, min ematen digun hori guztia gainetik kentzea baino.

Dugun hezkuntza sistemak hori guztia trabatzen du?

I.J.: Inposatuta dagoen sistema da. Gauzak beste era batera egin daitezkeela uste duten irakasleak dauden arren, gela baten barruan oso mugatuta daude. Erritmo batzuk jarraitu behar dituzte, eta horrek jan egiten du umearen eta irakaslearen arteko harremana. Irakasleek presio handia dute, eta bakoitzak ahal duena egiten du. Gainera, intentzioak ez dira nahikoa, horrek betetzeko baliabideak beharrezkoak dira. Eskola batetik bestera, gauzak aldatu daitezke, baina, sistema dena da.

Mikel Kazalis (Zarautz, 1968) | Anestesia taldeko musikaria

“Gauza ederra da taldea sortu zenerako jaio gabe zeudenak kontzertuetan ikustea”

Eraso! talde zarautzarraren ostean eskainiko du Anestesia laukoteak kontzertua, Plateruenean, bihar



Anestesia taldean ezezik, Matxura taldean ere jotzen du Kazalisek.

➤ **MUSIKA** Itsaso Esteban Urtebete inguru da ‘Zirkulutik espiralera’ diskoa kaleratu zenuela. Zelako sentsazioak izan dituzue denbora honetan? Ikaragarri ondo joan da urtea. Oso pozik gaude. Disko hau atera genuenean, 27 urte bete

zituen taldeak, eta aurreko diskotik jo gabe hainbat urte egon eta gero, berezia izan zen. Ez genekien jendeak zer harrera egingo zigun, baina zuzenekoekin hasi ginenetik, oso harrituta gaude zaleen erantzunarekin. Leku askotatik deitu digute, eta

jende asko etorri da kontzertuetara. Oso kontzertu potenteak izaten ari dira.

Zelako erritmoan ibili zarete azken bira honetan? Taldekideon artean negoziatu beharra izan dugu, hilabetean

zenbat kontzertu egin adosteko. Bakoitzak gure lan, familia, eta taldeak dauzkagu, eta adostu dugu hilean bi kontzertu egitea, gehienez. Muga horrekin jardun gara aurtan.

Ezezko asko eman duzue?

Egia esan, bai. Hilean bi kontzertu horiek baino gehiago jotzeko proposamenak egiten dizkigute, eta askori ezetz esan behar izaten diegu.

Euskal Herriko zein hemendik kanpoko proposamenak jasotzen dituzue?

Euskal Herrian jotzen dugu gehienbat, baina Madril, Zaragoza, Katalunia edo Galiziatik ere jasotzen ditugu proposamenak. Zaila egiten zaigu horrelako lekuetara joateko antolatzea, baina, noizean behin, egiten ditugu; Iaz, esaterako, Resurrección Fest jaialdian jo genuen, eta laster, Otero Brutal Fest jaialdian joko dugu, Oviedon.

Kanta berriak dira birako kontzertuen ardatza?

Talde batean jotzen urte asko daramazunean, eta erreperatorio zabala daukazunean, zaila egiten da kontzertuetarako kan-

ta zerrenda prestatzea: kanta berriak zuzenekoan sartzeko, zaharren batzuk atera beharra dago, baina, aldi berean, publikoak klasikoak entzutea gura du. Gero eta arazo handiagoa daukagu horrekin, baina azken disko honen biran zortzi kanta berri eskaintzen gabilta. Geu zein entzulegoa ere diskoarekin oso gustura gaudelako gertatu da hori. Kanta berriak jotzeko beharra sentitzen genuen.

Baina, kanta klasiko batzuk derrigorrez jo beharrekoak izango dira... Entzuleek eskatu egiten dizkizute...

Bai, beti dago borroka hori; klasiko batzuk jo beharra dago kontzertu guztietan. Gure kasuan, zuzeneko guztietan jotzen ditugu aspaldiko dozena erdi kanta.

Zelakoa izan da bira honetako zuzenekoetan jendeak eman dizuen erantzuna?

Jo gabe hainbeste urte daramazunean, pentsatzen duzu logikoa litzatekeela jendea zutaz ahaztea, edo tendentzia berriak beste batzuk izatea, eta zuk egiten duzuna modaz pasata geratzea.

Baina ez zaizue horrelakorik gertatzen. Entzulego oso fide-la daukazue.

Diskotik diskora sei-zortzi urte pasatzen ditugu jo gabe, eta harritzekoa da, berriro azaltzen garenean, garai zaharreko jarraitzaile asko, baina baita belaunaldi berriak ere hurreratzea gure kontzertuetara. Gauza ederra da taldea sortu zenerako jaio gabe zeudenak ere gure kontzertuetara etortzen direla ikustea. 27 urte asko diren arren, gure ibilbidea hasieratik jarraitu duen jendeak ere jarraitzen du gure kontzertuetara etortzen.

Trash-metal doinuen jarraitzaileak ez den jendea ere erakar-tzea lortu izan duzue, gainera.

Esan izan digute hori, bai: etxean gure disko bat inoiz ipini-ko ez lukeen jendea ere gustura etortzen dela gure zuzenekoetara. Badirudi, musika estilo honen oso zale ez den jendeak ere gustuko duen indar bat transmititzen dugula zuzenekoetan.

Urte osoan jarraituko duzue kontzertuak eskaintzen?

Lehenengo galdetu genion geure buruari: “Noiz arte jarraituko dugu biragaz?”. Urte bukaerarako eskaintzak jasotzen hasiak gara, eta, egia esan, bertigo apur bat ere ematen digu urte guztia programatua izateak.

Plateruenean jo zuten azken aldia oso gogoan dute taldekideek

Mila entzuleren aurrean eskaini zituzten ‘Terapia’ diskoko kantak, orain 10 urte

2006ko abenduan Durango-ko Plateruenean jo zuteneko “oroitzapen oso potentea” dutela taldekideek kontatu du Mikel Kazalis Anestesia taldeko gitarristak. Bost urteko geldialdiaren ostean, *Terapia* diskoaren birako lehenengo kontzertua jo zuten, Durangon. “Geldialdiaren ostean, ez genekien jendeak zer erantzun emango zuen, eta harrigarria izan zen Plateruenekoa: mila entzuleren aurrean jo genuen, ikaragarria izan zen”.

Diskotik diskora egiten dituzten geldialdiak zelakoak izaten diren galdetu dio ANBOTOk Kazalisi, eta denbora batez entseguetarako ere ez direla elkartzen kontatu du musikariak: “Jasotzea behar dugu, zerbait eskaini ahal izateko, eta denbora behar da horretarako: abesti berberak jotzen bi urte daramagunean, asperdura eta zerbait berria egiteko gogoia sentitzen dugu”.

Ibilbide luze eta oparoko musikaria da Kazalis: Negu Gorriak edo Kuraia taldeetan jo zuen, Anestesiako kidea da

1988tik, eta Matxura taldean ere jotzen du. Anestesia taldeko beste hiru musikariek ere beste talde batzuetan jotzen du-

te: Ernia taldean Imanol Beloki bateria-jotzaileak, eta The Brutal taldean Dani Aizpuruak eta Ibon Esteibarrek.



Anestesia taldeko kide guztiek beste musika talde batzuetan ere jotzen dute.

> ZINEMA Itsaso Esteban

Gaur estreinatuko dute EAE-ko zinemetan Ben Sharrock eskoziarrak zuzendu eta Irune Gurtubai elorriarrak ekoitzi duen *Pikadero* filma. Hiriburuetan eta Durangon emango dute, gaurtik aurrera, eta beste herri askotan ere zabalduko dute, horren ostean.

Gaur hasi, eta martxoaren 8ra arte egongo da filma Durangoko Zugaza zineman ikusteko aukera

Kritikarien sariketan, eta Zurich eta Kieveko zinema jaialdietan goiraipatu dute Sharrocken filma

Martxoaren 4tik 8ra egongo da filma Durangoko Zugaza zineman ikusgai; eta martxoaren 19, 20 eta 21ean, filmaren ekoizlearen herrian, Elorrioko Arriolan.

Irune Gurtubai elorriarrak ekoitziriko ‘Pikadero’, eskualdeko zinemetan

Durangon eta Elorrion emango dute Ben Sharrockek zuzenduriko filma



Joseba Usabiagak eta Barbara Goenagak antzeztzen duten bikotearen istorioa da filmekoa.

Irailan, Donostiako Zinemaldian estreinatu eta gero, munduko beste 20 zinema jaialditan erakutsi dute *Pikadero*. Hainbat sari eskuratu dituzte, gainera: zinema kritikarien

FIPRESCI sariketan, eta Zurich eta Kieveko zinema jaialdietan goraipatu dute filma. “Kritikak zein publikoak ere oso ondo hartu du”, azpimarratu du Gurtubai elorriarrak.

Barbara Goenagak eta Joseba Usabiagak antzeztzen duten bikotearen maitasun harremana kontatzen du filmak, eta Durangaldeko paisaia ezagunetan kokaturik dago istorioa.

GEURE DURANGALDEA

AINHOA URIEN

Ikaslea



Mundua ez da era honetan aldatzen

Trañako geltokitik Donostiara trenaren bidaia bi orduz luzatzen dela dakigunok kexa besterik ez dugu, baina egiaz, ideia zipitzik ere ez daukagu Mediterraneo itsasoa zein zabala den. Batez ere ito beharrean datozenentzat.

Otegi ere atera da kartzelatik, eta barruan egon den artean izandako presio soziala gizabanakoen maitasun bihurtu da martitzenaz geroztik. Baina maitatzen dugunok sentitzen dugu, eta nekez ahazten dugu, orain zapartaren goren zorionsuan bagabiltza ere, negarraren negarraz sufritzen ere ikasi dugula.

Atzo, martxoak 3, Gasteiz odoldu zen. Negarretik amorrua hartu genuenetik oihu egiten ere ikasiak gara, eta isildu daitezela isiltasuna sinatu zutenak, guk ez dugu ez gogorik ez beharrik.

Euskarak leku gutxi du Nafarroan, baina nago, gurean ere metro karratuak txikitzen ari zaizkiola, arnas pixka bat hartzeko leihorik gabe.

Eta emakumeak, ba dagoe-na ikusi nahi duenarentzat, zer esanik ez. Kolpeka dabilz-kigu handik eta hemendik, eta sinestezinezko gihar indartsu batek zutik mantentzen gaitu; borroka deritzo, maitasuna, amorrua... edo beno, dei beza norberak nahi duen gisa.

Mundua ez da artikulua idatziz aldatzen, eta noski, hemen ez dira zerrendatu munduaren kaka usaintsu eta ederki apaingutako guztiak. Kontuan hartzeko, besterik ez. Motiboak sobera ditugu borrokarako, motibaziorik ez, agi denez.

Durangaldeko bertsolari seikotea, finaletik kanpo

Busturialdeak irabazi du lehen finalaurrekoa

> BERTSOLARITZA I.E.

Arratzuko Institutuan jokatu zuten, eguaztenean, Bertsolari

Gazteen BBK sariketaren lehenengo finalaurrekoa Durangaldeko eta Busturialdeko tal-

deek. Saioa parekatua izan zen arren, Busturialdeko seikoteari eman zion epaimahaiak puntu gehien: Durangaldeko bertsolariak baino 6 puntu gehiago bildu zituzten Busturialdekoek (436 puntu bildu zituen Busturialdeak, eta 430 Durangaldeak). Bertsolari gazteen sariketaren finaletik kanpo geratu da, beraz, Durangaldeko seikotea.

Durangaldeko bertsolariak baino 6 puntu gehiago bildu zituzten Busturialdekoek

Martxoaren 8an egingo duten finalaurrekoan, Uribe Kosta eta Hego Uriberen arteko saioan irabazten duen taldeagaz lehiatuko da Busturialdea, finalean. Ohi bezala, Bilboko Kafe Antzokian egingo dute finala, martxoaren 18an, 19:00etan.



Eguaztenean Arratzun jokatu zuten finalaurreko saioa.

Batukaden Topaketarako izen-ematea

> MUSIKA I.E.

Maiatzaren 21ean, Zornotzan, egingo dute Euskal Herriko Batukada Topaketa, eta parte hartu gura duten talde eta norbanakoei izena emateko deia luzatu diete antolatzaileek. Ekimenaren berri emateko zabaldu duten www.batukaden-topaketa.eus webgunean eman daiteke izena. “Perkusioa atsegin duen eta mundutxo honetan lehen urratsak egin nahi dituenak ere izango du gurera hurbildu eta gozatzeko aukera”, adierazi dute ekimenaren antolatzaileek.

Zornotzako Zaparrada batukada taldeak eta Lasarteko Dinbi Banda taldeak dihardute Batukada Topaketen egun osoko egitaraua prestatzen.

El amor después del amor

Ados Teatroa

Martxoaren 5ean
20:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín
KULTUR
GUNEAK
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN
MENU BEREZIAK

MARTXOAK 4
22:00etan
LOS INSIGNIFICANTES
ANTZERKIA

MARTXOAK 5
22:30etan
ANESTESIA + ERASO
KONTZERTUA

MARTXOAK 11
21:30etan
LOS CHICHOS
AZKEN KONTZERTUAK

Hazilan: Durangaldeko Behargintza gazte kualifikatuak laguntzen

> BEHARGINTZA

Durango Merinaldearen Amankomunazgoak Durangaldeko Behargintzak HAZILAN proiektua jarri du martxan. Durangaldeko gazte kualifikatu langabeak eta herriko enpresak uztartuko dituen ekimena da. Programa hau Europako Gizarte Funtzak % 50 kofinantzatzen du eta bost urteko iraupena izango du.

HAZILAN programa EAEko 131 udalerritan eskainiko da Garapenek koordinatutako ekimenen parte hartzen duten 20 garapen agentzien bitartez; tartean da Durangaldeko Behargintza.

Laneratzeari errazteko ekin-tza ezberdinen programa da HAZILAN eta honakoei zuzenduta dago: langabezian dauden eta ikasten ari ez diren 20-35 urte arteko gazte kualifikatuak.

HAZILANen helburu nagusia laneratzen laguntzea da eta, horretarako, honako helburu zehatzak ditu:

1. Zeharkako konpetentzia sozio-profesionalak hobetzea eta ahalduzkoak sustatzea, lan-munduan sartzea erraztuko duten tresnen bidez.

2. Pertsonen lan-aktibazioa enplegua bilatzeko ibilbide osoan.

3. Lanbide-trebakuntza hobetzea eta lanpostuari lotutako esperientzia eskuratzea, lan-mundua eta egindako prestakuntza-aren lanbide-aukerak jakiteko.

HAZILAN programaren prestakuntza prozesua ondorengoa da:

1. atala. AKTIBATU (80 ordu). Laneratzen eta lan-aktibazioan laguntzeko prozesuari hasiera emateko ibilbidearen lehen urratsa da, eta pertsonaren alderdi integralak lantzen ditu: alderdi fisikoa, kognitiboa eta emozionala.

Gaur egun, hezkuntza arau-

tuko prestakuntza, berez, ez da nahikoa gazteek lan-merkatuan aukera hobekien edukitzeko. Izan ere, behar bezala moldatzeko baliabideak eta gaitasunak eduki behar dituzte gazteek. Enpresek eskatzen dituzten etengabeko aldaketetara egokitzeko, gatazkak kudeatzeko, presiopean lan egiteko, emozioak kudeatzeko edota taldearekin koordinatzeko gai diren profilak. Konpetentzia horiek ez dira kontuan hartzen, oro har, ikasketa arautuetan, baina alderdi erabakigarriak dira.

Waktibatu fasearen helburuak:

- Pertsona bakoitzaren konpetentzia pertsonalak eta profesionalak identifikatzen laguntzea.

- Parte-hartzaileek beren aurreko ikasketa eta esperientzietan eskuratutako ezagupenak eta trebetasunak berriz balioestea.

- Laneratze beharrezkoak diren konpetentziak eta trebetasunak indartzea.

- Parte-hartzaileak enplegua bilatzeko bidean jarrera proaktibo baterantz bideratzea.

- Elkar laguntzan eta taldeko lankidetzan oinarritutako sinergia eraikitzailea sortzea.

Honela garatuko da prestakuntza hori:

1. Konpetentzia pertsonalak eta emozionalak. Autodiagnostikoa egingo da, pertsonaren baliabideak identifikatu eta haren indarrak sustatuz. Horretarako, hainbat konpetentzia landuko dira: proaktibitatea, autonomia, automotibazioa, autoerantzukizuna, pentsamendu kritikoa, frustrazioarekiko tolerantzia, espektatiben kudeaketa...

2. Lanbide-konpetentziak. Pertsona lanbide-erolean kokatu eta lan-munduan eskatzen diren konpetentziei lotutako alderdiak landuko dira: komunikazioa, presentzia, talde-lana, lan-

Lantalde on bat eratzeak gakoa

PERTSONA EGOKIAK

Enpresa-proiektu baten arrakastaren gakoa pertsonak dira. Merkatuan lehiatu ahal izateko ezinbestekoa da ondo gaitutako, enpresa-proiektuan inplikatutako eta behar bezala motibatutako lantalde bat izatea.

JARRI HARREMANETAN HAZILANAREKIN

Zure enpresan, hazteko eta proiektu berriak garatzeko, lantalde eraginkor eta inplikatutako bat nahi baduzu, eskuratu informazioa zure garapen agentzian edo www.hazilan.eus webgunean.

Garapen inbertsioa lantzen garapenaren bidez

EUROPA BATASUNA UNIÓN EUROPEA

POPY III 2014-2020

kidetza, gizarte-trebetasunak, lidergo partekatua, gatazken kudeaketa, erabakiak hartzea, plangintza...

3. Merkatuan kokatu. Aurreko faseetan landu diren eta enplegua bilatzeko prozesua abian jartzea helburu duten alderdiak zehaztuko dira. Horretarako, honakoak egingo dira: helburuak zehaztu, baliabideak identifikatu, merkatura bide-

ratu, ekintza-plan bat zehaztu, elkarriketetan eta automarketuean trebatu...

Banako saioak

Hiru saio aurreikusten dira: hasieran (helburuak finkatzeko), prozesuaren erdian (pertsonen bilakaera aztertzeke), eta amaieran (helburuen bete-tze-maila balioesteko eta laguntza handiagoa behar duten per-

tsionen alderdiak indartzeko).

Pertsona bakoitzeko 5 orduko jarraipena egingo da.

2. atala. KOKATU, batez beste 4 hile irautean duten praktikak.

Informazio gehiago
Durangaldeko Behargintza
 Tel.: 946 232 522
www.mdurango.org

DURANGALDEKO BEHARGINTZA

Laubideta, 6 DURANGO Tel.: 946 232 522

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.mdurango.org





Kabaret bateko langileak dira antzezlanaren protagonistak.

Plateruenean eskainiko dute, gaur, ‘Los Insignificantes’ obra

Durangoko Atara Zarata taldearen antzezlan da ‘Los insignificantes’

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Gaur, martxoaren 4an, 22:00etatik aurrera, Durangoko Plateruenean eskainiko dute sortzaile durangarrek *Los insignificantes* antzerki obra. Gizartearen arauetatik kanpo bizi diren kabaret bateko langileak dira Markel Ganboak idatziriko istorioaren protagonistak.

Zazpi bekatu kapitalen inguruan ardazturiko istorioa da *Los Insignificantes*: “Kabaretetik kanpo daudela uste dutenak ere mundu horretan sartuz gero, bertan geratuko liratekeela iradokitzen dugu antzezlanagaz”, azaldu zuen Ganboak zuzendaria, lana estreinatu zutenean.

Iazko apirilean estreinatu zuten antzezlan, Durangoko San Agustinen. Taldekideak euren herrian arituko diren bigarren aldia izango da, beraz, Platerueneko gaurkoa. Estreinaldian

publikoak harrera oso beroa egin ziela gogoratu du Ganboak: 200dik gora ikusle izan zituzten, “publikoa oso gustura ateraz, eta baita geu ere: sentsazio onak izan genituen”.

lazko apirilean estreinatu zuten antzezlan, Durangoko San Agustin kulturgunean

Usue Martinez eta Jon Blanco sartu dira taldean, Miren Uribelarrea eta Leire Barrenetxearen ordez

Durangoko San Agustinen antzezlan estreinatu zutenetik hona, antzezlanaren testuan

zenbait moldaketa egin dituztela azaldu dute taldekideek. Eta antzezle taldean ere badago berrikuntzarik: Miren Uribelarrea eta Leire Barrenetxearen ordez, Usue Martinez eta Jon Blanco sartu dira taldean. Euren batera, Aitor Etxarte, Julene Bernaola, Pello Velasco, Ane Moreno eta Iban Quesada dira antzezlaneko aktoreak.

Los insignificantes obra honen aurretik, *Desberdinak* eta *Nor nori nork* antzezlanen sorreran elkarlanean jardun izan dira taldekideetako asko.

Platerueneko gaurko emanaldiaren ostean, *Los insignificantes* antzezlan lekua gehiagotan erakusteko aukerak sortuko zaizkiela espero dute Atara Zarata taldekideek. Hainbat antzokigaz, eta antzerki amateurreko jaialdiekin harremanetan dabiltzala aurreratu dute.

Hamabi kanta instrumentaleko diskoa eman du ‘Itsua’-k argitara

Diskoaren 50 ale kaleratu ditu Beat Salad Records-eko kide durangarrak

> MUSIKA I.E.

Soviet Space Salad diskoa argitaratu du Arkaitz Cayado *Itsua* Beat Salad Records ekoiztetxe autogestionatuko kide eta musikari durangarrak. Disko instrumentala da, eta sortzaileak azaldu duenez, “gizakiak espaziotik bidalitako lehenengo soinu eta erritmo ilunen” uztarketatik sortutakoak dira *Soviet Space Salad* diskoko hamabi kantak. Egilearen “espazioarekiko lili-

ratik”, eta “lehen errusiar esploratzaileak omentzeko” gogotik sortutako proiektua da.

Formatu digitalean zein fisikoan ipini du musikari duran-

Beat Salad Records-en webgunearen bitartez entzun eta erosi ahalko da ‘Itsua’-ren diskoa

garra diskorik berria salgai: Beat Salad Records-en webgunearen bitartez (www.beatsaladrecords.com) entzun eta erosi ahalko da formatu digitalean, 4,99 euro ordainduta. Disko fisikoa erosteko eskaria ere webgune horretan egin ahalko da. Egileak azaldu du diskoaren 50 ale kaleratu dituela, 9,99 euroko prezioan. Ale bat erosten duenak, CDa ezezik, 3Dko poster bat, betaurrekoak eta txapa bat jasoko ditu.



Beat Salad Records ekoiztetxe autogestionatuko sortzailea da Arkaitz Cayado ‘Itsua’.

Iurretako eta Durangoko literatur lehiaketak

> LITERATURA I.E.

Iurretako XIII. Literatur lehiaketara eta Durangoko Julene Azepeitia lehiaketara idazlanak bidaltzeko sasoiz daude literaturzaleak. Iurretako lehiaketaren epemuga martxoaren 11 da, eta apirilaren 22ra arte aurkeztu ahalko dira ipuin, olerki eta bertsoak Durangoko Julene Azepeitia lehiaketara.

Durangoko Udalaren euskaraz sailaren (Barrenkalea 17, 48200) helbidera, edo posta elektronikoz juleneazepeitia@durango-udala.net era bidali daitezke lanak, Durangoko lehiaketaren kasuan. Adinaren arabera bost mailatan burutuko dute lehiaketa, ohi bezala, ipuinen, olerkien eta bertsoen kategorietan. Durangoko gazteek, eta 18 urtetik gorako edozein pertsona har dezake parte lehiaketan.

Iurretako lehiaketan, udal-etxean, Herri Bibliotekan, edo lehiaketa@iurreta.net helbidean aurkeztu ahalko dira lehiaketara ipuinak, bertso paperak eta komikiak.

Iurretako udalaren webgunean eta www.durango-euskaraz.net webguneetan daude lehiaketen oinarriak ikusgai.

Zinegoak jaialdiko sei film emango dituzte, Berrizen

> ZINEMA I.E.

Martxoaren 9an, 20:00etan hasiko da Zinegoak jaialdiko hainbat filmen emanaldia, Berrizko Kultur Etxean. Bilboko gaylesbotrans zinema jaialdiaren XIII. edizioako sei film emango dituzte: *Semeak*, *Aitona Mantangorria*, *A qui la faute?*, *Come home*, *De que lado me olhas?* eta *Garelako* izenburukoak.

EAEn sorturikoak dira *Garelako*, *Semeak* eta *Aitona Mantangorria* film laburrak, eta Frantzia, Taiwan, AEBn eta Brasilen ekoiztirikoak, beste hiru lanak. Animaziozko *Garelako* filma kenduta, dramak dira gainontzekoak.



Martxoak

8

EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO EGUNA

**TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA ETA ZERBITZU JURIDIKOA**

946 200 492



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



Ainhoa Azurmendi (Hernani, 1978) | Psikologoa eta kirol aholkularia

“Kirolean estereotipoak irauli egin behar ditugu”

Kirolean berdintasuna landu guran, ikastaroa emango du Azurmendik, Elorriion

> **BERBAZ** Paul Bustindui

Ainhoa Azurmendi psikologo eta kirol aholkulariak urteak daramatza emakumeen heziketa fisikoa aztertzen, genero ikuspegitik. Martxoaren 10ean, eguena, Elorrioko Kultur Etxean “Kirol esparruan berdintasuna landuz” izenburua duen hitzaldia eskainiko du, 18:30ean.

Kirol eragileentzat zuzentzen dituzu ikastaroak. Emakume kirolariei ematen zaien heziketa sexista da gaur egun? Emakume kirolariek ez dute

heziketa formal bat izaten. Hitz egin beharko genuke gizarte osoak jasotzen duen heziketaz. Nahiz eta heziketa programak ugaritzen ari diren hezkuntzan, oraindik ez daukagu berdintasunean oinarritutako hezkuntza bat ume txikiek hezkuntzan jasotzen duten heziketa fisikoko ikasketetan, SHEE ikasketetan edo magisteritzako heziketa fisikoko eskoletan. Genero ikuspegi on bat sortzeko, pauso asko daukete emateko.

Traba handiak aurkitzen ditu

emakumeak kirol esparruan XXI. mendean?

Sozializazio prozesutik modu ezberdinean hezten dira emakume eta gizonak, nahiz eta azaleko gauzak ematen diren, heziketaren arabera. Jartzen dizkiguten arropen, ematen dizkiguten jostailuen edo egiten ditugun ariketa fisikoen arabera, agerian dago ezberdintasunak egon badaudela. Kirol arloan, desberdintasun handiak daude gaur egun, alde ekonomikoan, giza baliabideen banaketan edo arlo materialetan. Esate baterako, formakuntza hoberena duten entrenatzaileek gizonekin egiten dute lan. Instalazio eta ordutegi okerrenak, gainera, emakumeei egokitzen zaizkie.

Zer nolako arazoak daude?

Goi mailako kirolean garrantzia duten horietakoak. Publikoa ez da ohartzen inguruan dauden desberdintasunak. Emakumeei, oraindik ere, estereotipo ugari jartzen zaizkie. Aukeratzera garaian, badaude estereotipoak jarrera eta jokabideari dagokienez. Formakuntzan, goi mailako kirolariengan berdintasunaren inguruko benetako formazio bat falta da.

Bakarkako kirolak zailtasun gehiago dakarkio emakume kirolariari?

Desberdintasuna eta diskriminazioa daude oro har, eta modalitate indibidualetan handiagoak dira zailtasunak, mutilekin aritzearen ondorioz. Badi-ra neskak gaztetatik mutilekin ondo konpontzen direnak, baina gehiengoak amore ematen du bere kirol ibilbidean. Oso zaila da, gutxietsita egon, eta jarraitzeko gogoa izatea.

Eta talde kirolak?

Talde kirolean ere, kirol batzuetan genero ezberdintasunak daude, oraindik. Ordutegi eta entrenatzaile hoberenak gizonen kirolak hartzen ditu, eta honek gutxietsi egiten du emakumeen kirola. Beraz, kirol modalitatearen arabera, zailtasun gehiago daude.

Arlo ekonomiko eta materialean, klubek era egokian kudeatzen dituzte emaku-



meentzako eta gizonentzako errekursoak?

Oro har, legeak ezin die diru publikoagaz lagundu diskriminatzeko duten elkarte eta federazioei. Beraz, berdintasuna lortu beharra dago baliabideen banaketan. Emakumeei kalitatezko eskaintza bat ematen zaienean, kirol ibilbidea hobetzen zaie.

Komunikabideek behar besteko esfortzua egiten dute emakumezkoen eta gizonen artean albisteak parekotasun batetik helarazteko?

Eusko Jaurlaritzaren azken txostenean agerian geratzen da emakumeen albisteak ez daudela, kuantitatiboki, gizonen parean. Gehienetan, gorputz sexualizatueta eta kirolarekin zerikusia ez daukaten alderdietan zentratzen dira. Askotan, ez da kazetari lana ondo egiten, eta beraz, oraindik urrun gaude lortu beharreko mailatik.

“Emakumeen albisteak ez daude, kuantitatiboki, gizonen parean”

Eta kirol ikuslegoaren partetik, zer hobetu daiteke?

Hau gizartearen eskutik datorren arazo bat da, edozein arlotan ikusiko dena. Gizartean, berdintasunak ez dagoen heinean, ezin daiteke lortu pareko ikuslego bat. Jendeak ez du interesik jartzen, argudio errazera jotzen du, baina honek ez du balio. Beste herrialde batzuetan, ez da hau gertatzen. Iparraldeko Europako herrialdeetan, eskubaloia ikuslego anitza dauka. Kanadan ere, emakumezkoen futbolak zaletu ugari biltzen ditu. Zenbait herrialdetan, politika berri asko jarri dira distantzia hori murrizteko, eta hau mundu osora zabaltzeko beharra dago.

Nazioarteko kirol batzordeak gero eta gehiago sustatzen du emakumeen kirola, baina herrialde garatuak baino ez da mugatzen, ezta?

Arazo estrukturala dela uste dut. Afrikan, esate baterako, ezinezkoa litzateke arazo hauek hitz egiten hasia, oinarriko eskubide batzuk bermatuta ez dituztenean. Dena dela, emakumeen gorputzak jasaten duen sexualizazioa mundu guztian gertatzen da.

**elorrio****OTSAILEAN**

• **Ikastetxeetan “Elorrioko emakume kirolariak”**: HH, LH eta DBHko irakasleek kirola eta berdintasuna irakazteko prestakuntza jaso eta ikasleek emakume kirolariek osatutako muralak egingo dituzte.
• **Irakurketaren gida: Kirola eta Berdintasuna**. Elorrioko Liburutegia.

MARTXOAN

• **MARTXOAK 3, eguena**
• **Erakusketa**: Elorrioko emakume kirolariek osatutako muralak. Elorrioko ikasleek egingo. Iturri Kultur Etxean eta Kiroldegiko horman.

MARTXOAK 4, barikua

• **Ipuin kontalaria: “Juanita kuxkuxek beldurrik ez”**. Maite Franco. 17:00 (3-5 urte) eta 17:30 (6-9 urte). Euskaraz. Iturri Kultur Etxean.
• **Mahai-ingurua: “Elorrioko emakume kirolariek solasaldia”**. 19:30. Iturri Kultur Etxean (sarrera libre).
• **Antzerkia: “Florido Pensil Neska”**. Tanttaka Teatrea. 22:00. Euskaraz. Arriola Antzokian.

MARTXOAK 5, zapatua

• **Bizikleta martxa: “Frenorik ez”** (Zaldibar-Durango) Emakumeentzat. Durangaldeko “Frenorik Ez” Plataforma Feminista. 11:30ean Elorrioko Plazan harrera.
• **Rap Kontzertua: “La Basu eta AneGuria”**. 22:15. Gaztetxean (sarrera libre).
• **Zinea: “Sufragistas”**. 22:00. Gaztelaniz. Arriola Antzokian.

MARTXOAK 6, domeka

• **Zinea: “Sufragistas”**. 20:00. Gaztelaniz. Arriola Antzokian.

MARTXOAK 7, astelehena

• **Zinea: “Sufragistas”**. 20:00. Gaztelaniz. Arriola Antzokian.

MARTXOAK 8, asteartea

• **Manifestazioa Durangon**. Durangoko Plataforma Feministak antolatuta. 19:00. Durangoko Santa Ana Plazan.

MARTXOAK 10, eguena

• **Ikastaroa: “Kirol esparruan berdintasuna landuz”**. Irakaslea: Ainhoa Azurmendi. Kirol-eragileentzat: entrenatzaileak, klubetako jantak, heziketa fisiko irakasleak, begiraleak... 18:30-20:30. Euskaraz. Iturri Kultur Etxean. Doan.

MARTXOAK 12, zapatua

• **Kirol-jarduera: Urkiolarako Mendi Martxa**. Emakumeentzat. Irteera 9:00 Herriko Plazan. 5 orduko ibilbidea, Urkiolan bazkaldu eta buelta lineako busez (norberak berea ordaindu behar du).
• **Kirol-jarduera: “Parketako kirol-makinak erabiltzen ikasteko saioa”**. Irakaslea: Miriam Etxenagusia. Emakumeentzat. 17:00-18:00. Aldatsalekua Jauregiaren ondoko parkean. Doan. (euria eginez gero, ez da egingo).
• **Zinea: “Carol”**. 22:00. Gaztelaniz. Arriola Antzokian.

MARTXOAK 13, domeka

• **Zinea: “Carol”**. 20:00. Gaztelaniz. Arriola Antzokian.

MARTXOAK 14, astelehena

• **Zinea: “Carol”**. 20:00. Gaztelaniz. Arriola Antzokian.

Izena emateko, idatzi edo deitu:
kirola@elorrio.eus / 946 582 712 (Berdintasun arloa)



Amatasuna eta kirola berbagai izango ditu Ana Casares triatletak

Bere bizipen pertsonaletik abiatuta solasaldia proposatuko du, martxoaren 10ean

> HITZALDIA Joseba Derteano Amatasuna eta kirola. Kirolari-bizitza ama izan aurretik, eta ostean. Ana Casares (Iruñea, Nafarroa, 1971) triatletak *Mama Triatleta* liburua idatzi zuen 2012an, bere hirugarren haurdunaldian zegoela, eta gai horietan sakondu zuen bere bizipen pertsonaletatik abiatuta. Harrezkero, bere esperientzia hainbat hitzaldi, kongresu eta ikastetxetan partekatu du: “Jendea islatuta sentitu daiteke nire bizipenekin, eta, beharbada, egoera batzuk gainditzen lagundu diezaieke”, dio. Hurrengo geltokia Zornotzan izango du, martxoaren 10ean, 19:30ean. ‘Amatasuna eta kirola’ izango ditu berbagai Koraleko egoitzan.

Barruan sentitzen zuena kontatzeko beharrak eraman zuen liburua idaztera: “Kirolari, emakume, emakume langile eta ama lez bizitako guztia transmititzeko beharra sentitzen nuen. Umetatik azken haurdunaldira arteko autobiografia da”, gogoratu du. Liburu horretan jasotzen

diren eta bere bizitzan garrantzitsuak izan diren bost-sei bizipen elkarbanatuko ditu Casaresek, eta horren inguruko solasaldia sortzea gustatuko litzaioke, denei, berari barne, ikasgaiak ateratzeko balio liezaiekeena: “Kirolaren gainean jardungo dut, eta nire bizitza zelan garatu zen kirolagaz lotuta. Amatasuna, seme-alabak, eta zelan lortu

“Motibazioari eutsiz gero, nahi dena lortu daiteke, jakinda erori egingo garena”

nituen sekula imajinatuko ez nituen lorpenak, ama izan ostean”.

Izan ere, Casares goi mailako triatleta da, eta ama izan ostean lortu ditu lorpenik handienak: Espainiako Maratoi txapelketa, esaterako: “Neu nintzen, ama izan ostean, aurreko mailara

itzuliko ez nintzela pentsatzen zuen aurrenekoa, eta normala izan daiteke hori pentsatzea”. Kirola terapia moduan erabili zuen lehen haurdunaldiaren ostean. Lan-kaleratze batek “hondoratuta” utzi zuen. Kirola sendagai moduan erabili, eta emaitzak heldu zitzaizkion apurka: “Neu izan nintzen lehenengo harritua”, dio. “Horrek erakusten du, motibazioari eusten bazaio eta egiten duzuna gustuko baduzu, nahi dena lortu daitekeela. Hori erakusten duten hainbat adibide aurki genitzake”. Ikuspegi positiboa eman du: “Kirolean zein bizitzan, beldurrak gainditu eta helburuak markatu behar direla uste dut, jakinda erori egingo garena batzuetan, baina normala da, eta aurrera egin beharra dago”.

Bide horretan, bikotekideak eta inguruko jendeak duen garrantzia ere azpimarratu du triatleta nafarrak, “zereginak elkarbanatzerako orduan zein emozionalki ulertua sentitzera-ko orduan”.



Ama izan ostean lortu ditu garaipenik handienak atleta iruindarrak. A.Casares



Ana Casares bere umetako batekin helmugaratzen. Ana Casares

8 Emakumeen Nazioarteko Eguna MARTXOAK 8 ZORNOTZA

MARTXOAK 5

- Goiz osoan zehar Herriko Plazan: **Emakume Artisau eta Nekazarien azokaren XIX. edizioa.**

MARTXOAK 8

- 11:30 Zornotza Aretoan: **“Nik egin beharko & Ko. Pantxika Lamur” antzezlan eta martxoaren 8ko kartel lehiaketaren sari banaketa.** (LH 5.maila eta LH6. mailako ikasleei zuzendua).
- Kontzentrazioa eta Adierazpen Instituzionalaren** irakurketa Herriko Plazan, 13:00etan.
- 17:00-20:00 **STOP MOTION** tailerra gaztetxokoan.

MARTXOAK 10

- 19:30ean Koraleko egoitzan: **Amatasuna eta kirola hitzaldia** (Ana Casares)

MARTXOAK 16

- 18:00 Nagusi Aretoan: **Amama esklabua hitzaldia.**

Hilabete osoan zehar KINE ZIKOLA

Martxoak 8:

Zikloaren aurkezpena, **“La adopción”** filma eta lunch-a.

Martxoak 15:

“Paulina” eta osteko solasaldia Lara Izagirrerekin.

Martxoak 22:

“La novia” eta zikloaren amaiera jaia.

DURANGALDEA

Bizikleta martxara eta parranda feministara batzeko gonbita Durangaldeko emakumeei

‘Frenorik ez sistema patriarkal eta kapitalista transformatzeko!’ aldarria zabalduko dute ekimen bietan



Eskualdeko hainbat emakume feministaren ekimena da ‘Frenorik Ez’.



Zaldibartik abiatuko da, bihar, 10:30ean, bizikleta martxa.

> MARTXA Itsaso Esteban Durangaldeko errepideak, kaleak eta plazak emakume bizikletariz beteko dira, laugarren urtez, martxoaren 5ean. Durangaldeko emakumeen *Frenorik ez* bizikleta martxa antolatu dute eta eskualdeko hainbat emakume feministek, elkarlanean.

Frenorik ez sistema patriarkal eta kapitalista transformatzeko! aldarria zabalduko dute emakumeek, aurtengo ere, herririk herri. Zaldibarko udaletxeko plaza-teratik aterako da martxa, 10:30ean, eta Berrizen, Elorrion, Atxondon, Abadiñon, eta Iurretan geldialdiak eta kontzentrazioak bu-

rutu ostean, Durangora 13:30ean ailegatzea aurreikusi dute. Ibilbidea amaitzean, Santa Ana plazan elkartuko dira, luntxerako, martxaren parte-hartzaileak.

Laugarren bizikleta martxaren harira, gauerako ere egitaraua prestatu dute, gainera, aurtengo. Elorrioko Gaztetxean

La Basu eta Aneguria hip hoplarien saioa ere jasotzen du biharko egitarauak

ZALDIBAR

Emakumeen I. Herri Lasterketa egingo dute

Martxoaren 12an egingo dute Arineketan ekimena

> EGITARAUA I.E.

Adin guztietako emakumeen parte-hartzeari irekita dago, martxoaren 12an, lehenengoz, egingo duten lasterketa hori. Udaletxe plazan hasiko dute ekimena, 11:00etan, eta hiru

kilometroko ibilbidea burutuko dute herrian zehar. Egun horretan egingo dituzte, baita, martxoaren 8ko egitarauan ohi-koak diren afaria eta dantzaldia, Olazar frontoian. Olga, Karobi eta Castet tabernetan eskuratu

daitezke afarirako txartelak, martxoaren 8a orduko.

Helmuga Elkartek eta udalak martxoaren 8aren harira antolatu duten egitarauan, Helmuga Elkartearen kideek egingo duten eskulanen erakusketa, eta *Amama* filmaren inguruko zineforuma ere ageri dira. Martxoaren 5ean eta 6an, Liburutegi Zaharrean egongo da erakusketak, goiz eta arratsaldean, eta leku horretantxe emango dute *Amama*, martxoaren 8an.



Martxoaren 8an, Liburutegi Zaharrean emango dute ‘Amama’.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA ZALDIBAR

- Martxoak 5 eta 6
HELMUGA ELKARTEAK EGINDAKO LANEN ERAKUSKETA, liburutegi zaharrean 11:00 -14:00 eta 17:00 -19:00.

- Martxoak 8, martitzena
AMAMA PELIKULAren emanaldia eta eztabaida 19:00etan, liburutegi zaharrean.

- Martxoak 9, eguaztena
BILBORA IRTEERA, HELMUGAK antolatuta.

- Martxoak 12, zapatua
ARINEKETAN! EMAKUMEEN HERRI-LASTERKETA 11:00etan, udaletxe plazatik abiatuta.

AFARIA ETA DANTZALDIA 21:00etan Olazarren
Tiketak 20€. Olga, Karobi eta Castet-en salgai.
Azken eguna: martxoak 8, martitzena.



IURRETA

Milia Morea: Berdintasunaren aldeko 1.609 metro

Domekan, lehenengo Milia Morea jokatu dute Iurretan, parte-hartzea bultzatzeko helburuz

> KIROLA Markel Onaindia
Lasterketa bat izango da, baina garaipenak ez du garrantzirik edukiko. Ez da inskripziorik egongo, ez dortsalik, ezta sailkapenik ere. Iurretako lehenengo Milia Morean parte-hartzea bultzatuko dute, lehiaren gaitetik. Domeka honetarako ipini dute hitzordua, 12:00etan, Goiuria kulturgunearen inguruan.

Iraia Garcia atleta zornotzarra izango da korrikaldiaren dinamizatzailea. "Parte hartzeko zerbaite izango da. Azken finean, aldarrikatzen egongo gara, kausa bat babesten", esan du Garciak. Zirkuitu bat sortuko dute herrigunean, eta horri hiru buelta ematea izango da zeregina. Kulturgunetik hasita, Zubiaurre, Bixente Kapana-ga, Bidebarrieta, Dantzari eta Askondo kaleak zeharkatuko

dituzte. Azkenik, kulturgunean amaituko da lasterketa.

Emakume zein gizon

Martxoaren 8ko egitarauaren barruan kokatu dute Milia Morea, eta partaidetza ahalik eta

Iraia Garcia atleta zornotzarra izango da korrikaldiaren dinamizatzailea

handiena egotea gura dutenez, ez dute mugarik jarriko. Emakumeek bezala, gizonek ere parte hartu ahal izango dute. Gainera, adin guztietarako prestatutako ekimena izango da, Iraia



Adin guztietako herritarrek batu gura dituzte domekako Milia Morean.

Garciaren arabera. Umeetatik nagusietaraino. "Gizarteak barneratu behar duen zerbaite da", adierazi du atleta zornotzarrak.

Morez jantzita

Etzi, martxoak 6, eguerdiko 12:00etan elkartuko dira korrikalariak, eta antolatzaileek dei berezi bat egin dute: morez jantzita joatea, parekidetasunaren aldeko koloreagaz, hain zuzen ere.

Iurretako korrikalariak

Iaz, Gu Be Bai Runners taldea sortu zuten Iurretan, korrika egitera edo oinez ibiltzera irteten ziren emakumeekin. Proiektu hori ere Iraia Garciaren laguntzaz jaio zen, bera baita begiralea. Azaldu duenez, udaberrian eta udan 25 bat emakume ibili ziren taldean, eta neguan, eguraldiagatik, kopurua apur bat bajatu arren, laster berriro igoko dela uste du Garciak.

Adin guztietarako prestatutako ekimena izango da, Garciaren arabera

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA IURRETA

MAR TXOAK
1-10

ERAKUSKETA
"Emakumeen lege iraultzailea"
Ibarretxe Kultur Etxea
LUMALTIK HERRIAK

MAR TXOAK
1-30

SELFIE LEHIAKETA
Gaia: Berdintasuna
Bidali zure selfie Iurretatik.
gizarte-ongizate@iurreta.net

eguna
3

19:00 Ibarretxe Kultur Etxea
HITZALDIA: "La resistencia indígena en Chiapas. Las comunidades del EZLN". Hizlaria: Lumaltik Herriak

12:00 Goiuria Kultur Gunea. **IURRETAKO MILIA MOREA**

Berdintasunaren alde. Herrigunetik zehar, musikaz girotuta
Dinamizatzailea: Iraia Garcia *Animatu morez jantzita etortzera!*

domeka
6

astelehena
7

18:15 Ibarretxe Kultur Etxea. **EMAKUMEEN LITERATUR TAILERRA**
Afrikarrak. Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal (Skolastika)

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

19:00 Ibarretxe Kultur Etxea. **ADIERAZPEN INSTITUZIONALA-IRAKURKETA. TARTA-PASTELEN LEHIAKETA ETA DASTAKETA**
Izen-ematea, martxoaren 1etik 6ra.

martitzena
8

eguztiena
9

10:15 Ibarretxe Kultur Etxea
"XL irakurketa errezako kluba"

18:30 Ibarretxe Kultur Etxea
Hitzaldia: "Escritoras euskaldunes en castellano"
Hizlaria: Josune Muñoz

AFARIA-DANTZA

21:30 Goiuriako ikuspegi jatetxea / **20:45** Autobusa, Bidebarrietan
Leku-kopuru mugatua. Izen-emateak, eta txartelak salgai:
martxoaren 1etik 9ra.

zapatua
12

Argibide gehiago, izen-emateak eta txartelak salgai:
-Ibarretxe Kultur Etxea (gizarte-ongizate@iurreta.net / 94 620 03 42)
-Goiuria Kultur Gunea - Anderebide emakumeen elkarte (anderebide@gmail.com - osteguna (16:30) - 616 490 506



Kultura, berdintasunaren aldarria zabaltzeko tresna

Hurrengo egunetan literatur tailerrak egingo dituzte, Iurretan



Erakusketa martxan dago Ibarretxen. Bertan izango dira ekintzarik gehienak.

> KULTURA M.O.

Martxoaren 8aren harira, egitarau oparoa prestatu dute Iurretan, hilabete osoan zehar hedatuko dena, gainera. Ekitaldirik gehienak kulturalak izango dira; kultura, berdintasunaren aldarria zabaltzeko tresna den seinale.

Dagoeneko martxan dago erakusketa bat, martxoaren 10era arte bisitatu ahaliko de-

na. *Emakumeen lege iraultzailea* izeneko da, eta Ibarretxe kultur etxean dago ikusgai. Astelehenean, Emakumeen Literatur Tailerra burutuko dute, 18:15ean. Skolastika elkarte Ainhoa Aldazabalek gidatuko du, eta idazle afrikarrak izango dira ardatz.

Literaturak eguaztenean jarraituko du, hilaren 9an. 10:15ean, irakurketa erraze-

Ohiturari jarraituta, martxoaren 12an afaria egingo dute, Goiurian

ko tailerra egingo dute, nagusiei bideratuta. Arratsaldean, 18:30ean, Josune Muñozek berbaldia emango du, gaztelaniaz idazten duten euskal idazleen ingurukoa.

12an, afaria

Bestalde, eta azken urteetako ohiturari jarraituta, martxoaren 12an afaria egingo dute, Goiuriko Ikuspegi jatetxean. 21:30ean hasiko da, eta 20:45ean autobusez irtengo dute herrigunetik. Inskripzioa hilaren 9an amaituko da.

Horretaz aparte, martxoan zehar berdintasunagaz lotutako *selfien* (argazki pertsonalak) lehiaketa egongo da, eta hilaren 8an, pastel lehiaketa ere bai.



JATETXE GIDA

ÑAM!



PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako etorbidea, 4 DURANGO
Tel.: 946 030 300
Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.
www.plateruena.eus

ÑAM!



IKUSPEGI
Goiuria, 12 IURRETA
Tel.: 946 811 082
Sukaldaritza tradizionala autore sukaldaritza ukituarekin. Durangaldeko ikuspegi ederrak.
www.ikuspegi.com

ÑAM!

MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)



JULIANTXU
Iturriza, 2 BERRIZ
Tel.: 946 824 077
Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 DURANGO
Tel.: 946 200 864
Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak. Egunero zabalik.
www.olajauregi-jatetxea.com

ÑAM!



KANBIO JATETXEA
San Migel Dueda auzoa
AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 033
Aste bitarteko menua, asteburuko menua, menu berezia eta karta.



Profesional onenak zure zerbitzura!

2016ko UDALEKULAK





MENDIGORRIA

UZTAILAK 1-12
LH3-LH4
280€
60 PLAZA





BEIZAMA

UZTAILAK 11-22
LH5
280€
45 PLAZA





IBILTARI TXIKIA

BIZKAIKO KOSTALDEAN ZEHAR

EKAINAK 27-UZTAILAK 8
LH6-DBH1-DBH2
280€
55 PLAZA





IBILTARI HANDIA

NAFARROATIK GIPUZKOAKO KOSTALDERA

UZTAILAK 10-24
DBH3-DBH4-1.BATXILERGOA
295€
55 PLAZA



IZENA EMATEKO EPEA:

- Martxoaren 3tik apirilaren 1era.
- Martxoaren 3an 18.00etatik 20.00etara Berbaroko bulegoan.
- Martxoaren 4tik aurrera bulegora etorrifia, emailaz, zein telefonoz.

HOBARIAK:

- % 10 Berbaroko bazkideek
- % 5 bi neba-arreba badira
- % 10 hiru neba-arreba badira

BERBARO ELKARTEA: Pinondo plaza 1, 1. solairua / alstaldia@berbaro.eus / 946202540 / www.berbaro.eus



udan olgetan



GOZATU OLGETAN EUSKARAZ BERBETAN

Norentzat:
3-10 urte bitartekoentzat (2008tik 2012 urte bitartean jaioak)

Udalekuen ordutegia
Astelehenetik barikura 9:00etatik 13:30era
Astean behin egun osoko irteera 9:00etatik 16:30ra
*jantoki zerbitzua eskainiko da.

Izen ematea
Martxoaren 3tik apirilaren 15era.
-Martxoaren 3an 18.00etatik 20.00etara Berbaroko bulegoan.
-Martxoaren 4tik aurrera bulegora etorrifia, emailaz, zein telefonoz.

Informazio gehiago
Berbaro elkarte: Pinondo plaza 1, 1. solairua
Bulego ordutegia (9:00-13:30 // 15:30-18:30)
946 202 540 / gurean@berbaro.eus / www.berbaro.eus

Hobariak:
Berbaroko bazkideak %10
Bi neba-arreba badira %5
Hiru neba-arreba badira %10



KAZKABAD
1. ASTEA:
(Ekainak 27-uztailak 1)

Xelebre
2. ASTEA:
(Uztailak 4-8)

KILIKILI
3. ASTEA:
(Uztailak 11-15)

Momorio
4. ASTEA:
(Uztailak 18-22)

Txutxumutxu
5. ASTEA:
(Uztailak 25-29)

www.berbaro.eus

Txomin Marañon | Durangaldea Running-eko korrikalaria | Durango, 1995

“3.000 metroko atleta denen artean, nirea zen iazko denborarik txarrena”

Urtebetean garapen handia izan du Txomin Marañonek, eta Euskadiko txapelketa irabazi du 3.000 metroko proban.



> KORRIKA J.D.

Negu gogorra izan duela dio Txomin Marañonek. Entrenamendu gogorrak, asteko egun askotan. Baina, ahalegin horrek ekarri du bere saria. Urtebetean garapen handia izan du, eta 3.000 metroko proban Euskadiko txapelketa irabazteko balio izan dio pista estalian eta maila absolutuan.

Garaioena sorpresa izan da?

Bai. Anoetan 3.000 metroko probarako batu ginen atleta denon artean, nirea zen iazko denborarik txarrena. Gainera, pista estaliko lehenengo lasterketa nuen. Imaginatu! Beldur apur batekin irten nintzen, baina gero, lasterketan, ondo sentitu nintzen.

Hasieran eutsi, eta azken itzulian eraso jo zenuen.

Bai. Imanol [Gonzalez, Atletico San Sebastian taldekoa] eta biok aurretik gindoazen; bera erritmoa markatzen. Erritmoa jaitsi zuela ohartu nintzen, eta ni indartsu sentitzen nintzen. Itzuli erdi falta zela, “hauxe da unea” pentsatu, eta eraso jo nuen. Ez nuen azken zuzengunean sorpresarik nahi.

Neguan entrenamendu gogorak izan dituzula esan didate.

Oso negu gogorra izan dugu, ordu asko bideratu ditugu entrenamenduetara: bost-sei egun astean. Emaizak horren ondorio dira. Abadiñoko krosean, Dabid [Garcia] txapeldun eta ni hirugarren geratu ginen. Taldean junior bat dugu, Ander Hilera, oso maila onean dabil, eta Bizkaiko txapeldun geratu da. Hirurok talde sendoa egiten dugu.

Pistara begirako entrenamenduak espezifikoak dira?

Bi egunerik behin pistan entrenatzen gara, eta hor erritmo altuetan aritzen gara. Hauek dira entrenamendurik garrantzitsuenak. Gainerakoan, kanpotik ibiltzen gara, bidegorrietan-eta, errekupeartzeko.

Zelako entrenatzailea da Dabid Garcia?

Entrenatzaile, aholkulari... denetarik da. Oso gustura nago beragaz. Gure erreferentzia eta korrikalari oso ona izateaz gainera, entrenatzaile lez ere oso ona dela erakusten digu. Edozelan ere, emaitza ez da dena. Taldean dagoen giro onak asko laguntzen du. Giro on horrek gure lorpenak berezi bihurtzen ditu. Motibatzen laguntzen digu. Horrela ez balitz, gatzagoa izango litzateke.

Helduko da ikasleak irakaslea gaindituko duen eguna...

Dabidi jarraitzea oso zaila da, benetan, baina horixe da gure motibazioa beti. Berak dioenez, gu indartsu gatzela ikustea aparteko motibazioa da berarentzat ere. Ea bi-hiru urte barru aurreratzen dugun (barreak).

Badituzu aurreragoko lanak. Esaterako, martxoaren 12-13ko asteburuan, Espainiako kros luzeko txapelketan parte hartuko duzu Euskadiko selekzioagaz.

Dabid, Ander eta hiruron helburua Euskadiko selekzioagaz txapelketa horretan aritzea zen, eta lortu dugu. Calatayud-en izango da, Zaragozan. Gozatzea da helburua, denboraldian egingako lanak ekarri didan sari moduan hartzen dut. Maila handia egoten da, eta zaila da aurreko postuetan sartzea.

Beste helburu bat Laredon daukazu.

Bai. 10 kilometroko lasterketa da, eta distantzia horretako Espainiako txapelketan parte hartu ahal izateko denbora minimoa —32.30 azpitik— lortzen saiatuko naiz. Beste helburu bat 1.500 edo 5.000 metroko Espainiako txapelketetan aritzeko minimoak lortzea da.

“

Taldeko giro onak gure lorpenak berezi bihurtzen ditu; motibatzen laguntzen digu”

Bestekin alderatuta, 1.500 metrokoa lasterketa bizkorra da.

Bai, eta badaukat probatzeko go-goa. Orain, gaztetan, bizitasun hori dugunean, aprobetxatzen saiatu behar dugula uste dut. Esango nuke ondo moldatuko naizela, baina ez dakit, ikusiko dugu. Edozelan ere, gogor entrenatu beharko dugu.

10 kilometroko horri begira, entremenduetako denborek zer diote?

Orain arte egindako probetan denbora horren azpitik ibili naiz, eta ezer arrarorik gertatzen ez bada, denbora ateratzea espero dut. Hori ere beste sari bat izango litzateke, gozatzeko.

Orain urte bi hasi zinen korrika. Ez da umetatik datorkizun afizioa, ezta?

Ez. Umetatik kirol asko egin dut, eta gehienbat futbolekin eta esku pilotan aritu nintzen. Esku

pilota utzi, eta futbolekin jarraitu nuen; Kurutzia Ikastolan lehenengo, eta Ezkurdin, horren ostean. Inoiz ez naiz futbolari trebea izan, baina denek esaten zidaten korrika asko egiten nuela, iraupen luzekoa nintzela.

Futbola utzi, eta korrika hasia erabaki zenuen.

Hori da. Futbolak ez ninduen motibatzen, eta utzi egin nuen. Geldi ezin naizenez egon, neure kabuz korrika hasi nintzen. Arrasateko lasterketa batean parte hartu, eta bosgarren amaitu nuen. Ondo moldatzen nintzela ikusi nuenean, pistara hurre-ratu, eta Dabid ezagutu nuen.

Mendi lasterketetan hasi zinen, ondoren krosa probatu duzu, eta orain pista. Proba luzeetatik laburretarantz zoaz.

Iaz, kros denboraldi erdian hasi nintzen, eta ondoren, mendi lasterketak ere egitea erabaki nuen. Belaunean tendinitisagaz-eta arazo batzuk izan ditut, eta mendi lasterketetako jaitsierek beldur apur bat ematen didate. Pista probatu, eta motibazioak aurkitu ditut. Pistan zein krosean jarraituko dut.

Beraz, mendi lasterketak baztertuta dituzu?

Oraingoz bai. Pena da, ze mendia asko gustatzen zait, eta horren falta sumatuko dut, baina bueno. Gainera, mendian ere emaitza onak lortu nituen: Euskal Herriko kopan eta txapelketan bigarren geratu nintzen.

Beraz, gehien gustatzen zaizun modalitate barik geratu zara?

Mendia asko gustatzen zait, baina bat aukeratu behar banu, krosa aukeratu nuke. Hantetan indar handia dudala uste dut, eta lupetzean hori aprobetxatu egiten da. Denbora laburrean, daukazun dena ematen den modalitatea da, eta asko gustatzen zait hori.

Mendia, krosa, pistako askotariko distantziak... Zure benetako espezialitatea bilatzeko prozesuan zaude?

Bai, oraindik ez dakit non eman dezakedan nire onena. Mendian 20 kilometroko probetan ibilia naiz, baina apur bat luze gertatzen zaizkit; nire neurria 15 kilometro direla uste dut. Asfaltoan, 10 kilometrotik ez naiz pasatuko, nire onena 5 kilometroren bueltan dagoela esango nuke. Denboraldi amaieran ikusiko dugu denborek zer dioten, eta horren ostean baloratuko dugu.

Elorrioko Buskantzak Sasikoa liderra hartuko du etxean

Nesken derbia Elorrioko kiroldegian jokatu da, gaur, 20:00etan



Nesken Sasikoa talde durangarrak ez du partidu bakar bat ere galdu iragan denboraldian. M.González

> ARETO-FUTBOLA P. Bustindui Elorrioko Buskantza eta Sasioko nesken taldeen arteko derbia jokatu da gaur iluntzean, 20:00etan, Elorrioko kiroldegian. Durangarrek lidergoari eutsi nahi diote, eta Elorrioko taldeak, oster, goiko taldeekin izan dituen emaitza kaskarrekin bukaera eman nahi die.

Jose Izquierdok eta Gaizka Irigorrik zuzendutako Sasiko Durango sailkapenaren lehen postuan dago, 56 puntugaz. Neska durangarrek nagusitasun handia erakutsi dute denboraldi osoan, partidu bat ere galdu gabe, eta bi berdinketa soilik lortuta. 8 jardunaldi geratzen zaizkie denboraldia bukatzeko,

eta bigarren sailkatuarekin daukaten 7 puntuko aldeari eutsi nahi diote.

“Nahiz eta denboraldi hasieran helburu finkorik ez geneukan, oso denboraldi ona burutzen ari dira Durangoko neskek. Ilusioa eta dohainak ditugu lehen postua lortzeko”, dio Gaizka Iragorri entrenatzaileak.

Joaneko partidua 6-0 emaitzagaz bukatu zen arren, ez dira fio Iragorriren neskak: “Elorrioko Buskantza beti borrokara irteten den taldea da. Gainera, derbia izanik, are eta gogo handiagoarekin”.

Bigarren, hirugarren eta lauugarren sailkatuen aurka jokatu behar dute neska durangarrek. “Geratzen diren partiduetan onena eman behar dugu lider-tzari eusteko, partidu guztiak azkenak izango balira bezala lehiatuz”, dio Iragorrik.

Bestalde, Elorrioko Buskantza zortzigarren postuan dago, 29 puntugaz. Inigo Astarloak zuzentzen duen taldea oso gaztea da ligako beste taldeekin alderatuz. “Orain arte, maila onean ibili gara, gure mailako taldeei irabaziz, eta horrela jarraitu beharra dago”, dio Elorrioko Buskantzako entrenatzaileak.

“Oso gaxa ikusten dut Sasiokoaren aurkako partidua, ondo antolatutako taldea baita”, adierazi du Astarloak.

Azken bi partiduetan, zorte txarra izan arren, joko onarekin bukatu nahi dute denboraldia elorriarrek. Ilusioz dago Astarloa: “Datozen partidua gogorrak izango dira, baina saiatuko gara ahalik eta emaitza hoberekin lortzen”.

ADITUAREN TXOKOA

KEPA ARROITAJAUREGI

Pilota teknikaria



Urriaren lehena

Oraindik zortzi hile geratzen badira ere, pilotazaleak badu data seinalatu bat. Urriko lehen zapatua, azken hamarkadan frontoietan erreferente eta izar handia izan den pilotari bat agurtzeko eguna izango da. Pablo Berasaluzek azken partidua jokatu du, Bilboko Bizkaia frontoian. Txiki geratuko da, seguru.

Berriztarrak ez du bere ibilbide luze eta oparoan txapelik lortu, baina, berak aitatu duen bezala, pilotazaleak eskaini dion maitasunak txapelak baino gehiago balio du, eta harro doa. Pilotazalearekin erraz konektatu du Berrizko artistak; horixe izan baita bere kirol ibilbide osoan: Artista!

Berak esanikoa da: “Pilotak dena eman dit”, baina, egia esan, berriztarrak ere asko eskaini dio pilotari. Partidu gogoangarriak asko izan dira, pilotazaleak asko gozatu du berarekin, eta urriaren 1etik aurrera, apur bat penatuta egongo gara denok, Berrizko txikiaren deabrueriak ikusteko aukerarik barik geratuko baikara. Azkenaldian, lesioak tarteko, bere maila gorenetik aparte ibili da, baina, halere, bera kantxan izanik, beti espero izan dugu tanto liluragarri horietako bat. Eta Pablok beti eskaini dio hori pilotazaleari. Pasa uzteko garaia dela dio berriztarrak, eta sentsazio hori dut nik ere, izar handi batek maila gorenean esan behar baitio agur pilotari.

20-25 bat partidu jokatu du agur esango duen egunera arte, eta jendeak bikain erantzungo du, seguru, leku guztietan oso maitatua izan delako, eta ‘artista’ sena bukararaino mantentzen duenez, ikusmina sortuko duelako. Zorte on, azken sprintean!

DKT Bizkaiko talderik onena Espainiakoan



> KORRIKA P.B. / J.D. Joan den asteburuan, klubaren arteko Espainiako txapelketa jokatu zen Madrilgo Zarzuela hipodromoan. Durango Kirol Taldeak 14. postua lortu zuen sailkapenean, inoiz lorturiko posturik onena. Gainera, Biz-

kaiko taldeen artean, lehen sailkatua izan zen. Durangoko taldeko Oier Ariznabarretak, Aitor Mimenzak, Julen Ozaetak eta Ibon San Miguelek lortu zituzten puntuak. Taldean oso pozik daude aurtengo ekitaldian lortutako emaitzekin.

Ramasauskas Zornotzara, barruko jokoa indartzeko

> SASKIBALOIA J.D.

Ametx Zornotzak Ignas Ramasauskas (Lituania, 23 urte, 2.11 metro) pibota batu du taldera barneko jokoa orain duen gabeziari aurre egiteko. Avilako Carrefour El Bulevar taldetik ekarri dute. Lituaniarraren tzat aurtengoa da FEB mailako lehen denboraldia, eta orain arte joko irregularra erakutsi du. Partiduko 12 minutu jokatu ditu, batez beste, 3.6 puntu eta 2.8 errebote lortuta. Taldeari “aukera eta errekurso berriak” eskainiko dizkiola uste du Mikel Garitaonandia entrenatzaileak.



katerin ardoak
inaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13



PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Ansietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11



PEDAGOGIA

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

ugatz@hotmail.es

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



PODOLOGIA

**PODOLOGIA
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA
PODOLOGOA**

**AINHOA ELORZA
PODOLOGOA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13



ESTETIKA

CA AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09



OPTIKA

keinuu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometrizentroa.com

RPS: 162/13



ODONTOLOGIA

clínica dental hartzklinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Anderebidek sare sozialetan zein telefonoz “jasandako irainak” salatu ditu

Irudia kentzeko eskatuz, “gerora egon zitezkeen arazoak ekidin” gura zituzten



Emakumeen Bira apirilaren 13tik 17ra izango da.

> TXIRRINDULARITZA J. D. Iurretako Anderebide emakumeen elkarteak ohar bat atera du Emakumeen Birarako aukeraturako irudiak eragindako polemikaren ostean. Anderebideren asmoa “inoiz ez da izan gatazka hau sortzea, baizik eta elkar-erakitzeak, oportazioa egitearena”. Eurek ez zutela gaia komunikabideetara eraman diote, baina “guda mediati-

ko batean nahasiak” izan direla: “Eta salatu nahi dugu, elkarteak batzordeko emakumeek, azken bi asteetan, sare sozialetako mezu izugarri bidez eta baita etxeko telefono deien bidez, irainak eta erasoak jasan behar izan dituztela, gizonen aldetik, gehienbat”. Alde horretatik, euren bazkideek eta Durangoko Bilgune Feministak eta Andereak-ek emandako “babesa es-

kertu” dute. Baita “Emakundek emandako laguntza” ere.

Bere sasoiaren irudia aldatu zezaten eskatzeko izandako arrazoiak aipatu dituzte. Oro har, publizitatean zein komunikazioan “estereotipo sexistak transmititzen dira”. Kirol eremuan, “emakumeen irudi sexualizatu bat erakusten dute bereizgarri”. 2016ko Emakumeen Birarako aukeraturako argazki

hark “emakumearen alde gozo, maitakorra erakusten du, eta ez du kirolarekin lotzen diren balioekin zerikusirik: esfortzua, iraunkortasuna, gaingaitze eta hobekuntza...”. Anderebideren ustez, “horrelako kartel bat ez litzateke inoiz gizonezkoen proba baterako egingo, inoiz ez litzateke inoren burutik pasatuko kirol munduan gizonezko bat jarrera ‘jostagarri’ edo ‘irtirin’-ean erakustea, honen ile edo ezpainak azpimarratuz”. Emakumeen Bira “herrian asko maite dugun proba da”, eta “iritzi konstruktiboa” ematen saiatu zirela azaldu dute. Asmoa “gerora egon zitezkeen arazoak ekiditea zen”.

Antolakuntzaren iritzia

Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak “erabat gaitzetsi” nahi izan ditu Anderebidekoek jasandako irainak. Ondoren, euren orain arteko jarrerari eusten diote. Irudiak eragindako polemikaren inguruan, “txirrindularitza probako protagonisten babes osoa” jaso dutela diote, eta emakumeen txirrindularitzaren “idiosinkrasia ez ezagutzea” egozten diote Anderebide elkarteari. Probako aldietan, emakumeen figura euren jardunbideko askotariko jarreretan erakutsi dutela.

Nissan-Gaurisa Burgos indartsuaren kontra

Mailako talderik zailenetakoa dator Durangora

> ERRUGBIA J. D. Durango Nissan Gaurisa errugbi taldeak norgehiagoka gaitza dauka, asteburuan. Ohorezko B Mailan bigarren tokian sailkatuta dagoen Burgosek bisitatu du Arripausueta, zapatuan, 17:00etan.

Liga amaitzeko lau jardunaldi falta direnean, Burgos bigarren tokian sailkatuta dago, bere aurretik Zarautz bakarrik

duela, eta A multzoko talderik indartsuenetakoa da. Durango Nissan-Gaurisak, berriz, azken bi jardunaldietan galdu egin du Coruña eta Uribealde taldeen aurka, eta berririo garaipenaren bidera itzultzea dute helburu. Gaur egun, sailkapenaren erdian kokatuta dago Oskar Astarloak gidatzen duen taldea, zortzi garaipen eta hamar porrotekin.

Eskolartekoak krozean, Berrizburuko zirkuituan

Etzi eskolarteko jokoak egingo dituzte, Berrizen

> KROSA J. D. Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak antolatzen ditu, urtero, gazteen artean kirola sustatzeko helburuz, eta aurtengo aldia Berrizen izango da, domeka honetan.

Euskal Herri osotik etorrita, haur-kategoria mailako (13-14 urte) 200 gazte batuko ditu 35. al-

di honek Berrizburu inguruan antolatu duten zirkuituan. Mutilen kros lasterketa 11:00etan hasiko da, eta zirkuituari lau itzuli emango dizkiote. Neskek 11:20an ekingo diote probari, eta zirkuituari hiru buelta emango dizkiote helmugaratu aurretik. Ondoren, 12:15ean, sari banaketa egingo dute.

Txirrindularitza probak Bugallo gogoratuko du

Duranguesak martxoaren 24an antolatuko duen lasterketak Aitor Bugallo gogoratuko du

> TXIRRINDULARITZA J. D. Duranguesak urtero antolatzen du gazte mailako lasterteka eta, iaz afizionatu mailako taldea atera zuenez—Eiser-Inforlur—, aurtengo maila horretako lasterketa bat antolatzea ere erabaki dute. Biak martxoaren 24an izango dira: “Data aproposa dela uste dugu, Aste Santuan ez dagoelako afizionatu mailako lasterketarik”, dio Duranguesako Josu Atxotegik. Biak Aitor Bugalloren Oroimenezko lasterketak izango dira: “Aitor Duranguesako txirrindularia izan zen gaztetan, eta, familia-gaz berba egin ostean, erabaki hori hartu genuen. Aitorren senitarteko batek emango ditu sariak”. Aurrerantzean, proba hori Bugalloren oroimenezkoa izango da.

Ibilbidea Durango erditik Goizean, 09:30ean, afizionatu mailakoa hasiko da, eta arratsaldean, gazteetako. Afizionatu mailakoak 130 kilometro izango ditu, eta gazteenak 80. Aurtengo ibilbidea moldatu egin

dute ikusgarritasuna areagotzea bilatuz: Miotatik zehar egindako itzuliak Durango erditik igaroko dira. Francisco Ibarra kaletik sartu, eta Durangoko kale batzuk zeharkatu ondoren, Ezkurditik igaroko dira, esaterakio.

Ondoren, Tabiratik—Eguzkitza auzunetik— Abadiñora



AITOR
BUGALLO

joango dira. Zati hori ere nobedadea izango da eta tarte horretan dagoen bidearekin klasika ukitua eman gura diote lasterketari. Nagusiak bost bider igaroko dira Durango erditik, eta gazte mailako ziklistak, berriz, hirutan.

Goizeko lasterketa nagusien Euskaldun Torneurako puntuagarria izango da, eta arratsaldekoa, berriz, gazteen Euskal Herria Txapelketarako.

AGENDA
> ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Durango Nissan Gaurisa - Aparejadores Burgos
· Zapatuan, 17:00etan, Arripausueta.
EUSKAL LIGA
Durango Nissan Gaurisa - Hernani
· Zapatuan, 15:30ean, Arripausueta.
> FUTBOLA
BIGARREN B MAILA
Amorebieta - Mensajero
· Domekan, 12:00etan, Urritxen.
HIRUGARREN MAILA
Durango Kulturala - Getxo
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.
OHOREZKO MAILA
Iurretako - Loiu
· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelai.
MAILA GORENA
Zaldia - Etxebarri
· Zapatuan, 16:00etan, Solobarrian.
LEHEN ERREGIONALA
Zorrontzako - Urbiet
· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.
> ARETO-FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Presion Break - Egintza
· Zapatuan, 16:50ean, Berrizburu.
Sasikoa Durango - Meatzari
· Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian.
Elorrioko Buskantza - Internacional
· Domekan, 12:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.
EUSKAL LIGA
Elorrioko Buskantza B - Mallabia Seguros Altald
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.
Sasikoa Durango - Etxebarri
· Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian.
MAILA GORENA
Abadiñoko Gaztetxe - Mamariagako
· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.
> SASKIBALOIA
ZILARREZKO ADECCO LIGA
Zorrotza Saskibaloi Taldea - Azpeitiako Sammic ISB
· Domekan, 12:00etan, Larrean.
LEHEN ERREGIONAL BEREZIA
Tabirako Baqué - Leioa Berri
· Barikuan, 20:15ean, Leioan.
Zorrotza - La Salle
· Domekan, 12:00etan, Ixerbekoan.
LEHEN ERREGIONALA
Anbotopeko - Parque Bilbao
· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.
> PILOTA
BIHARKO IZARRAK
- A.Etxebarria - Alduntzin / Zubizarreta - Otaduy
- Errandonea - Erasun / Ugalde - Mateo
· Zapatuan, 17:00etan, Mallabiko pilotalekuan.
- Bakarko - Urizar / Prieto - O.Etxebarria
- Laso - Olaizola / Olano - Martinez
· Martxiaren 10ean, 21:15ean, Mallabiko pilotalekuan.

Egin zaitez Anbotoren Lagun, eta atera etekina txartelari!

Babestu proiektua urtean 30 euroren truke,
eta gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

DESKONTU BEREZIAK



A-METZ DEKORAZIOA

- > -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
- > - %10 altzari eta osagarrietan.



BETIXU JATETXEA

- > - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.



COLOR PLUS

- > -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
- > -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



EPOCA SUKALDEAK

- > -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- > -%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



GIMNASIO ZIRKIN

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- > Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.



GONZALO MANCISIDOR BITXI-DENDA

- > -% 5 produktu guztietan.



HITZ LIBURU-DENDA

- > -%10 euskarazko liburuetan.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- > -%15 sarreran.



ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- > -%5 lehenengo erosketan.
- > -%10 erosten den bigarren arropan.



IURRETA KOPISTEGIA

- > -% 10 eskola eta bulego materialean.
- > -%5 musika, opari eta liburuetan.



KATXARRO JATETXEA

- > - %10 asteburuetako menuetan.



KIROL ERROTA GIMNASIOA

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.



LANDAKO OPTIKA

- > -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- > -% 10 Dippner oinetakoetan.
- > -% 15 Euskal Herriko produktu ekologikoetan.



OPEN KLUB

- > -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- > Bosgarren gosaria doan.
- > Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

- > Azterketa eta bi erradiografiak doan.



UNDARRI BIKE

- > -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotu.
- > -%10 bizikletako osagarrietan.



URRIKE LIBURU-DENDA

- > -%5 liburuetan.
- > -% 10 papergintzan.

Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
 946 816 558

Anboto komunikabideak

@anboto

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575€-tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- TABIRAKALEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaje itxia.
- ERROTARITXUENA: atikoa. 3 logela, 2 komun, sukalde-egongela. 2 terraza handiak. Etxe osoa kanpora begira. 4 kotxerentzako garaje itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€.
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, 2 komun, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.
- 2 logela, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin eta egongela.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- AITA LETONA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Trastelekua eta garajea.
- ITURRITXO: Logela bakarrekot apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.000 m2-ko lursaila salgai. Zonalde egokia.

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati, bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserría. Arku zoragarria dauka sarreran. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailan kokatutako txaleta, Abeltxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- ATXONDO: Martza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Zonalde ikusgarria.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO ERAIKUNTZA BERRIA - ESTREINATZEKO



- 90 m2 .3 logela , egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta ganbara. **260.000€.**

MAÑARIA



- Primerakoa. Egongela tximiniarekin, sukaldea estreinatzeko, 3 logela horma-armairuekin, 2 komun, garaje itxia eta 24m2ko ganbara. **255.000€.**

IURRETA



- ikuspegi ezin hobeak eta guztiz berritua. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta ganbara itxia. **174.900€.** NEGOZIAGARRIA.

GOIENKALE



- 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, despentsa eta komuna. **145.000€.**

ARAMOTZ : GUZTIZ BERRIZTATUA



- Sukaldea, komuna, leihoak, berogailua, hormak.... 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. **135.000€.** Negoziagarria.

BERRIZ - ITURRIZA



- Etxe osoa kanpora begira Iturrian. 2 Logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta trastelekua. **125.000€.**

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ALLUITZ: 1 edo 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea eta trastelekua.
- ALLUITZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi.
- ANDRA MARIA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 terraza.
- ARAMOTZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ARTEKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- ASTOLA BIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
- ERMODO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua.
- ERROTARITXUENA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 terraza. Garajea aukeran, eta trastelekua.
- ERRENTENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran, eta trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garajea aukeran.
- GALTZARETA: 5 logela, sukaldea, egongela, 2 komun eta 2 bainugela. Portxea. Garajea eta trastelekua.
- GOIENKALEA: logela, sukalde-jangela eta komuna. 2 terraza. Trastelekua.
- JOSE ANTONIO AGIRRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- JUAN DE ITZIAR: 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa.
- JUAN DE ITZIAR: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- KOMENTU KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- MARTXOAREN 8KO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garajea.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- MONTEBIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza.
- MURUETA TORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta 2 komun. Balkoia. Trastelekua.
- TABIRA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Despentsa. Balkoia.
- UNDA TORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- URKIAGA TORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

ETXEBIZITZAK SALGAI

SASIKOA



- Etxebizitza altua. Dena berria. 80m2. 3 logela. komuna. sukaldea balkoiarekin. Egongela handia. Dena berria, haritzeko arotzeria. Ganbara. Garaje itxia (aukeran). **199.500€.**

ERDIALDEA



- Erdi berria. 3 Logela. 2 Komun.. Sukaldea. Balkoia. Egongela. Trastelekua eta garajea. **260.000€.**

ARKOTXA



- 100m2. 4 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela terrazarekin.. Ganbara eta garajea. **240.000€.** (Negoziagarria)

IURRETA (Maspe)



- 2 Logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Eguzkitsua. **111.500€.** ALOKAIRUA. EROSTEKO AUKERAREKIN

ZALDIBAR (Erdialdea)



- 3 Logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. 2 Terraza. Igogailua. Berogailua. **140.000€.**

MATIENA



- ARGAKIA 4 logela. Komuna. Sukaldea. Trastelekua. Egongela terrazarekin. Garajea aukeran. **165.000€.**

**ALOKAIRUA EROSTEKO AUKERAREKIN
LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK
ALOKAIRUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com**

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoz.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Aramalo. Berriki etxea. Aukera asko. 140m2-ko azalera, handitu egin daiteke. 3000m2-ko lursailarekin batera. Eguzkitsua, Urkiola Parke naturaleko ikuspegia. Hiru hiriburuetatik hurbil. Tel.: 669-06 47 88.

Bilbo. 76m2 erabilgarri. Kalitate ona. Egurra. Guztiz berriztuta. Garajea aukeran. Posta elektronikoa: bilbosalgai@gmail.com

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsu eta ederrean, 20.000m2 lursail. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.

EROSI

Durango. Durangoko Txibitena auzunean etxebizitza erosiko genuke. Ez zaigu inporta eraberritzeko badago. Tel.: 652-71 83 38.

ERRENTAN EMAN

Berriz. Berrizen, hiru logelako etxebizitza, errentan. Tel.: 639-42 54 43.

Zaldibar. Zaldibarren logela bateko apartamentua alokatzen da. Herri erdian kokatua. Tel.: 664-10 27 91. Posta: milaarroita@gmail.com.

ERRENTAN HARTU

Durango. Hiru logelako etxea alokatu nahi dugu Durangon. Tel.: 628-61 40 34.

Durango. Pertsona batentzako (logela 1 edo 2) etxea alokatu nahi dut, Durangon. Tel.: 645-70 10 87.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Berriz. Harategi eta frutategi moduan prestatuta dagoen lokala alokatzen da, Berrizen. Tel.: 620-77 39 47.

Durango. Ibaizabal auzunean guztiz apaindutako lokala alokatu edo saltzen da. Edozein negozio jartzeko prest. Tel.: 600-26 73 73.

GARAJE / TRASTEROAK

SALDU

Otxandio. Otxandion garaje itxia saltzen da. Tel.: 675-71 72 83.

ERRENTAN EMAN

Durango. Txibitenan garaje partzela bat alokatzen da. Tel.: 615-71 88 01.

Teknologia

GAINERAKOAK

SALDU

Lehorgailua salgai. Kondentsazioko Fagor B motatako lehorgailua salgai. Gutxi erabilia. Tel.: 618-17 97 57.

EMAN

Bidali zure ordenagailua. Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospital eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durangaldea. Mutil arduratsua prest dago okindegi edo taberna batean laguntzaile aritzeko, baita baserriko eta mendiko lanak egiteko ere. Tel.: 632-84 92 71.

ETXEKO LANAK

Elorrio. Emakume arduratsuak etxeko lanak egiteko eskaintzen du bere burua. Esperientzia handia. Erreferentziaduna. Tel.: 688-92 75 58. Posta: juliachans67@gmail.com.

PERTSONAK ZAINDU

Berriz. Berrizko pertsona euskalduna behar dugu, umeak eskolara eramateko. Elixabet. Tel.: 653-70 97 62.

Durangaldea. Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko. Tel.: 610-80 42 82.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Berehala hasteko prest. Tel.: 646-20 72 71.

Durangaldea. Gizon batek bere burua eskaintzen du adinekoak ospitaletan zaintzeko, paseatzeko, irakurketak egiteko, medikuarengana eramateko, etxeko garbiketak egiteko... Autonomoetan alta emanda nago. Tel.: 690-28 60 71. Posta: elorrirak@yahoo.es.

Durangaldea. Lan bila nabil petsona nagusiak eta umeak zaintzen.

Garbiketan ere bai. Astelehenetik ostiralera 09:15-16:00 eta asteburu osoa. Tel.: 609-88 79 21.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko, barneko edo kanpoko langile moduan. Tel.: 602-01 45 96.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 631-82 46 08.

Durangaldea. Barneko edo kanpoko langile moduan lan egiteko prest nago. Paperak ditut. Esperientzia handia. Tel.: 631-72 08 13.

Durangaldea. Andra euskalduna haur edo pertsona nagusiak zaintzeko prest; etxeko lanak ere egiten ditut. Erreferentziarekin. Tel.: 659-08 81 85.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko zein kanpoko langilea. Asteburuetan zein orduka. Tel.: 632-06 83 88.

Durangaldea. Lan bila nabil, aste barruan zein asteburuetan lan egiteko, goizez zein gauez. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere aritzen naiz. Tel.: 690-68 73 95.

Durangaldea. Lan bila nabil petsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere bai. Astelehenetik ostiralera lanaldi osoan, goizez, arratsaldez zein gauez. Orduka ere bai. Tel.: 665-72 37 24.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 943-68 21 12.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 943-68 21 12 / 600-28 19 88.

Durangaldea. Neska arduratsua eta esperientziagaz lan bila dabil umeak zaintzen zein garbiketan. Asteburetan eta orduka ere bai. Tel.: 602-01 24 53.

Durangaldea. Lan bila nabil, pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketan. Tel.: 648-78 53 63.

Durangaldea. Lan bila nabil, aste barruan zein asteburuetan lan egiteko, goizez zein gauez. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere aritzen naiz. Tel.: 632-20 31 55.

Durangaldea. Lan bila nabil, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, garbiketan edo gauetan laguntzeko. Arratsaldez edo gauez. Tel.: 631-73 01 44.

Durangaldea. Lan bila nabil, barruko zein kanpoko langile moduan, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere aritzen naiz. Tel.: 666-30 27 83.

Durangaldea. Lan bila nabil, barruko zein kanpoko langile moduan, pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere bai. Tel.: 632-72 87 90

Durangaldea. Neska arduratsuak bere burua eskaintzen du pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Astegunetan eta asteburuetan, baita gauez ere. Tel.: 619-67 60 44.

Durangaldea. Lan bila nabil arratsaldetan edo gauetan (13:00etatik 08:00etara). Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Erreferentzia onak. Tel.: 632-99 23 83.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Garbiketan edo sukaldean laguntzen jardun dezaket. Aste bitartean zein asteburuetan. Barneko eta kanpoko langilea. Tel.: 602-14 17 66.

Durangaldea. Barneko zein kanpoko langile moduan jarduteko prest. Asteburuetan eta aste bitartean. Tel.: 632-50 63 82.

IRAKASKUNTZA

Durango. Irakurketa, idazketa, ulermena, ikas teknikak (lan ohiturak, motibazioa, planifikazioa...). Banaka edo taldeka. LH, DBH, batxilergoa. Esperientzia. Tel.: 656-79 15 99.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Igeltserotzan, loregintzan, margoketan edo baserriko lanetan jarduteko prest nago. Tel.: 638-37 36 79.

LAN ESKAINTZAK

ETXEKO LANAK

Berriz. Etxe unifamiliar batean bizi gara, eta kotxea beharrezkoa da. Berriz herriko auzo batean. Lana 20 ordu inguru astean, eta ondo joanez gero, epe luzerako. Ordu-tegiarekin malgutasuna dugu. Tel.: 635-75 49 62 / 670-98 77 23.

PERTSONAK ZAINDU

Berriz. Berrizko pertsona euskalduna behar dugu umeak eskolara eramateko. Tel.: 653-70 97 62.

Durangaldea. Adineko pertsonekin paseatzen dut, esperientzia daukat arlo horretan. Prezio oso ekonomikoa. Deitu iezaidazu eta hitz egingo dugu, eskerrik asko! Tel.: 608-83 48 71.

Durangaldea. Emakume euskalduna behar dugu pertsona nagusi bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 615-75 23 71.

IRAKASKUNTZA

Elorrio. Gizon batek matematika klase partikularrak ematen ditu. Gaztelaniaz zein euskaraz. Elorrión zein Durangon. Tel.: 690-28 60 71 Posta: elorrirak@yahoo.es.

GAINERAKOAK

Durangoko fisioterapia zentro batean neska euskalduna behar da lan egiteko fisioterapia titulua duena.

Tel.: 688-86 84 62

Denetarik

SALDU / EROSI
Berriz elkartearen parte-hartzen salgai. Sociedad Cultural Gastronómica Berriz elkartearen parte-hartzea salgai. Tel.: 620-77 39 47.

Txakurkumeak opari. Txakurkumeak opari. Tel.: 692-36 69 55.

Aisia - kirola

KIROLAK

SALDU

Elorrión bizikleta bi salgai. Elorrión bizikleta bi saltzen ditut. Berri-berri daude, eta egoera onean. Bakoitza 650 eurotan saltzen dut, eta, horiekin batera, karreterako bizikleta klasiko bat oparituko dut etxean erabiltzeko gailuarekin batera. Tel.: 652-715 497.

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Martxoaren 6an, Elorriko Arriolan

Kontu kontari

Musika eta txotxongilo ikuskizuna da La Enana Naranja taldearen 'Kontu kontari'. Haur, gazte zein helduentzat sorturikoa. Umeek eta helduek gozatzeko moduko emanaldia eskainiko du La Enana Naranja taldeak, domekan, Elorrion. Hamar haur-kanta ezagun oinarri hartuta, reggea, rapa zein bluesa izango dira entzungai.



Erakusketa

:: DURANGO

MARTXOAREN 6ra arte

Javier Gorosarriren 'Durangaldeko paisaiak', Arte eta Historia Museoa.



Musika

:: BERRIZ

MARTXOAREN 8an

19:30ean, Mariela Casettaren 'Voz de Mujeres: canciones del mundo compuestas por mujeres', Kultur Etxean.

:: DURANGO

MARTXOAREN 5ean

22:30ean, Anestesia + Erasol, Plateruenean.

MARTXOAREN 11n

21:30ean, Los Chichos, Plateruenean.

:: ELORRIO

MARTXOAREN 5ean

22:00etan, La Basu + Aneuria, Gaztetxean.

:: ZORNOTZA

MARTXOAREN 7an

19:00etan, bateria ikasleen kontzertua, Zelaietan.



Antzerkia

:: BERRIZ

MARTXOAREN 4an

18:00etan, 'Pinocchio', Kultur Etxean.

MARTXOAREN 5ean

20:00etan, 'La extraña pareja', Kultur Etxean.

:: DURANGO

MARTXOAREN 4an

22:00etan, 'Los insignificantes', Plateruenean.

MARTXOAREN 5ean

20:00etan, 'El amor después del amor', San Agustín kulturgunean.

:: ELORRIO

MARTXOAREN 4an

22:00etan, 'El florido pensil neskak', Arriolan.

MARTXOAREN 6an

17:00etan, 'Kontu kontari', Arriolan.



Zinema

:: ABADIÑO

MARTXOAREN 7an

19:00etan, Emakumea eta mendia: 'Aztarnak' filmaren emanaldia eta berbaldia, Gaztetxean.

:: BERRIZ

MARTXOAREN 9an

20:00etan, Zinegoak jaialdiko 'Semeak', 'Aitona Mantangorria', 'A qui la faute?', 'Coming home', 'De que lado me olhas' eta 'Garelako' film laburren emanaldia, Kultur Etxean.

:: DURANGO

MARTXOAREN 11n

20:00etan, Zinegoak jaialdiko filmak, San Agustín kulturgunean.

:: ZALDIBAR

MARTXOAREN 8an

19:00etan, 'Amama' filmaren emanaldia eta solasaldia, Liburutegi Zaharrean.



Martxa

:: BERRIZ

MARTXOAREN 6an

12:00etan, VII. Añeketan, Berrizburutik Olaketara.

:: DURANGALDEA

MARTXOAREN 5ean

10:30ean, Durangaldeko Emakumeen bizikleta martxa, Zaldibarko udaletxe plazan hasita.



Tailerra

:: ABADIÑO

MARTXOAREN 19an

10:00-14:00 eta 15:30-19:30, Emakumeentzako autodefentsa, Errotan. Izen-ematea: 94 466 94 20.



Kontalaria

:: ELORRIO

MARTXOAREN 4an

17:00etan (3-5 urte) eta 17:30ean (6-9 urte), Maite Frankoren 'Juanita kuxkuxek berdurrik ez' saioa, Liburutegian.



Berbaldia

:: ZORNOTZA

MARTXOAREN 9an

19:00etan, 'Kurdistango emakumeen egoera' berbaldia, Ziztada Gunean (Luis Urrengoetxea 7, behea).

MARTXOAREN 10ean

19:30ean, Ana Casaresen berbaldia: 'Amatasuna eta kirola', Koralaren egoitzan.



Ibilaldia

:: ABADIÑO

MARTXOAREN 5ean

10:00etan, Elizbarrutiarteko otoitz ibilaldi misiolaria, Urkiolako Santutegian.



:: DURANGO | ZUGAZA

Cien años de perdón

- **barikua 4:** 19:30/22:00
- **zapatua 5:** 18:00/19:30/22:30
- **domeka 6:** 16:30/19:00/21:15
- **astelehena 7:** 18:30/21:00
- **martitzena 8:** 20:00

¡Ave, César!

- **barikua 4:** 19:30/22:00
- **zapatua 5:** 20:00/22:30
- **domeka 6:** 19:00/21:15
- **astelehena 7:** 18:30/21:00
- **martitzena 8:** 20:00

Pikadero

- **barikua 4:** 19:30/22:00
- **zapatua 5:** 18:30/20:30/22:30
- **domeka 6:** 19:00/21:15
- **astelehena 7:** 18:30/21:00
- **martitzena 8:** 20:00

Aviones de papel

- **zapatua 5:** 16:30
- **domeka 6:** 16:30

Zootropolis

- **zapatua 5:** 17:00
- **domeka 6:** 16:30

:: ELORRIO | ARRIOLA

Sufragistas

- **zapatua 5:** 22:00
- **domeka 6:** 20:00
- **astelehena 7:** 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

¡Ave, César!

- **barikua 4:** 20:15
- **zapatua 5:** 19:30/22:00
- **domeka 6:** 20:00
- **astelehena 7:** 20:15

Pesadillas

- **zapatua 5:** 17:00
- **domeka 6:** 17:00

La adopción

- **martitzena 8:** 20:00



Martxoaren 5ean, Berrizko Kultur Etxean

La extraña pareja

Neil Simon estatu batuarrek 1965ean idatziriko antzezlanaren interpretazio propioa dakar Txintxaun kolektiiboak 'La extraña pareja' antzezlanean. Bizitzaren gorabeherak apartamentu berean elkarrekin bizitzera bideratzen dituzten aspaldiko lagun biri buruzko istorioa da.

> **BOTIKAK**

BARIKUA, 4 · 09:00-09:00	DOMEKA, 6 · 09:00-09:00
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango	Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
ZAPATUA, 5 · 09:00-09:00	ASTELEHENA, 7 · 09:00-09:00
De Diego Intxaurrondo 22. - Durango	Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Iruarizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
09:00-13:30	09:00-22:00
Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango	MARTITZENA, 8 · 09:00-09:00
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango	Irigoiñ Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Navarro Arteka 6 - Durango	Iruarizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango	09:00-22:00
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango	EGUAZTENA, 9 · 09:00-09:00
Irigoiñ Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango
Jaio-Olabarrieta Errekakale 6 - Elorrio	Iruarizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Bartolome Gabiola 2 - Berriz	09:00-22:00
Eguren, Isabel Trañabarren 15 - Abadiño	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza	EGUENA, 10 · 09:00-09:00
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza	Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
	Iruarizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
	09:00-22:00
	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

> **ZORION AGURRAK**

 zorionak@anboto.org
eguztieneko 14:00ak arteko epea



> **Libek** 25 urte bete ebazan martxoaren 3an. Zorionak eta mosu handi bat zure lagun danen partez! Asteburuko lehenengo ardaue zure kontu!



> **Nahikeri Yachuanek** 13 urte bete ditu gaur, eta **Aitana Xiaoyik**, astelehenean 10. Zorionak! Ez galdu irribarre hori! Maite zaituztegu!



> **Ekaitzek** bi urte bete zituen martxoaren 3an. Zorionak eta besarkada potolo bat familiako danon partez!



> **Maribik** astelehenien mosu asko jasoko dauz, bere urteguna da eta! Zorionak eta eskerrik asko zure maitxasun guztixagaitzik, edarra zara!



> **Eukenek** martxoaren 5ean 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu erraldoi bat aita, aitite-amama eta osaba Mikelen partez.



> **Iratik** urtebete egin du gaur. Zorionak eta mosu potolo-potolo bat, guraso, Ani, Mitxi eta Errentxun partetik.



Ermodo, 11
DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com


 **Gozatu Gozategia**

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.

anboto.org MUGIKORREAN

- Albisteak** eta **agenda**, bizkor eta eskura.
- Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
- Parte hartu**, galderak eginez, erantzunak lortuz.
- Pertsonalizatu**, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !



Albisteak, agenda Telefono gida Parte hartu Herriko informazioa jaso



Lekuan lekuko informazioa

“Jarraitzeko gogoagaz nago, eta ahal dudan bitartean joango naiz”

14 urte dira Saharako Elkartasun Karabanan parte harzen duela; azken 12 urteetan kamioia gidatu du

> AKUILUA Aitziber Basauri Saharako Elkartasun Karabanutik bueltatu berri da Angel Alejo, eta ANBOTOK hitzordua jarri du berarekin. Durangaldean batutako ia 24.000 kilo elikagai eta sendagai eraman ditu Alacanterraino, kamioian. Aljeriaraino itsasoz heltzen da material osoa.

Zenbat urte kamioia Alacanterraino eramaten?

12. urtea izan da aurtengoa Durangoko Herria auzo elkarteagaz batera nabilela. Hala ere, urte bi lehenago, Atxondon ere hasi genuen elikagaiak batzeko kanpaina Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetara bidaltzeko. Orduan, Laudiora (Araba) errotan genuen batutakoa, eta eurek bideratzen zuten. 14 urte daramatzat guztira.

Nola hasi zinen?

Berriz hasita zegoen ume sahararrak ekartzen, eta, haien bitartez, Atxondora ere hasi ziren etortzen ume batzuk udako egonaldia egitera. Orduan, Atxondoko beste bat eta biok, motxila hartu, eta gure kabuz joan ginen kanpamentuetara, hura ezagutzeko. Urte horretan bertan, mutiko saharar bat ekarri nuen etxera. Urte bian egon zen Atxondon. 2001ean izango zen joan ginela. Hor hasi zen guztia. Horren haritik hasi ginen elikagaiak batzeko kanpainak antolatzen.

Hura izan zen lehenengo hartu-eman?

Bai. Bueltatu izan naiz seme-alabekin. Lehenengoz joan

ginenean, motxila hartuta, manta batzuk eskatu genizkien saharar batzuei, gaua pasatzeko, baina, eurentariko batek bere etxera eroan gintuen, 05:00etan. Bueltatu izan garenean, hara joan gara beti. Azkenengoz, 2006an joan nintzen, Alain semeagaz.

Bidaia berezia da Alacanterra egindako hau?

Bai. Ez naiz kamioilaria. Soladuskan atera nuen kamioia gidatzeko baimena, eta urtero berriro dut. Atsegin dut joatea; eta Herriak ere gogoan izaten nau horretarako.

Pasadizorik gertatu zaizue?

Durangaldekoek izan dugu zortirik gehien. Inoiz ez dugu arazorik izan. Iaz, Donostiakoek matxura izan zuten.

Bakarrik joaten zara?

Normalean, Ramonegaz joaten naiz. Aurrenetakoa izan zen ume sahararrak hartzen.

Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Arabatik, denok zoazte karabanan, ezta?

Bai, denok batera irteten gara. Egon dira urteak asko joan garena. Orain, material gutxiago batzen da. Baina, egon dira 60 lagunek eraman ditugun karabanak; horrek esan gura du, gutxienez 40-50 ibilgailu joan izan direla. Aurten, guztira, 14 ibilgailu joan gara; zerbait gutxiago batzen da, baina, egia da ere, Araba apur bat bere kontura doala. Urte bakoitzean, leku batetik irteten da karabana.

Aurten, ia 24.000 kilo jaki eta sendagai eraman dituzu.

Bai. Pasatuko garen tokietako komandantzietan abisua ematen da, baina, izan dugu arazotxoren bat Guardia Zibilagaz inoiz. Azalpenak emanda ez da arazorik egoten. Oso astiro joaten gara.

Harremanak sortuko dira...

Adiskideak gara. Joseba, Bilboko automobil-parkeko nagusia itzela da! Gero, elkarregaz afaltzen dugu.

Norbanako batek 6.000 euro eman ditu. Elkartasuna badago oraindik.

Dudarik ez. Galdetu dut, baina, top-secret ei da. Sendagaietara bideratzea izan da baldintza.

Jarraitzeko gogoagaz?

Bai. Ahal dudan bitartean, eta emazteak uzten badit.. (barrez).



LAUHORTZA

JULEN ORBEGOZO
Kazetaria



Barkamena

Lehenengo egunean amak gaia atera zidan. Euskal Herrian bizi izan dugun pasarte ilun eta triste horietako bat jarri zidan mahai gainean. “Gogoratzen duzu? Nik hartara bizi izan nuen, eta oraindik orain uste dut ez nauczula ulertzen”. Nire posizionamenduak (posizionamendu ezak, beharbada) min eman omen zion. Ez zidan hitzez barkamenik eskatu, ez; eta nik ez nion barkamenik hitzez eman, ez. Baina gertatutakoaz, sentipenez, hitz egin genuen, eta zauri txiki hura ixteko baliotza izan zigun.

Dena arautzeko, erregulatzeko, mugatzeko beharrezan duen jendartean bizi garela ematen du. Badirudi barkamenak ere ba omen duela eskema bat, estandar bat, paradigma landu bat. Hori da, hain zuzen, Durangon Memoriaren Plazaren ekimena ikusi dudanean pentsatu dudana. Baina, oharu naiz, nire amak eta biok ez dugula Memoriaren Plazara jo behar izan sentipenez hitz egin eta gure barrenak lasaitzeko.

Barkamena elkarrizketa xumeetan ematen da, ez hausnarketa nazionaletan. Barkamena eguneroko keinu txikietan gertatzen da, barruan dugun sentimendu hori, apurka apurka, albo batetik bestera mugiarazten dugunean.

Non erre, non edan, nondik joan, nola bizi esaten didan horrek beste ahalegin bat egin du esparru hau ere arautzeko. Kasu honetan, Jaurilaritzak saiakera berezia egin du gu errekontziliatzeko, autokritika eta barkamenaren bitartez. Beharbada ez dio inork esan, baina susmoa dut gai honekin zuk eta nik ez dugula Jaurilaritzaren beharrik, gure artean jarriko baitizkiogulako erritmoak eta moduak gure buruari.



maristak

Ikastetxea - Durango

etorkizun oso bat

www.maristak.com



Batzelergoak

Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Enplegurako Formakuntza



ATE IREKIAK
Martxoak 9
18:00-20:00